

ANAITASUNA

202 zenb.

1970. abenduaren 30 ekoa

Jardin Txikerra, 1 BILBAO-12



**GABON,
EGIN JAI
MADMON!**

JAINKO - ESKUA

(Carl Milles)

Bilboko euskaldunak

Hainbeste euskaldun Bilbon, eta hain euskera gutxi kalean. Zer egin geinke, oker hau zuzentzeko? Zer, batez ere urtearen muga? Jarrai euskeraz irakurtzen, mesedez.

Irratiak entzuten

Bilbotar guztiok egon gara egunotan, Pariseko eta beste irrati batzuk entzuten. Notizien berri izatea ondo dago, baina hobe da **notiziak egitea**. Eta notiziak lan eginaz sortzen dira. Baina, zer? Zer egin? Jarrai, mesedez, euskeraz irakurtzen.

ANAITASUNA

Gure harpidedun guztiei (sei mila eta gehiago), ANAITASUNA-ren txartela bidaldu jaken, autoetan jartzeko. Ipini dozu txartel hori zeure autoan? Ipini dozu beste edozein lekutan, agirian? Mesedez, astindu eizu zeure nagitasuna, edo zeure bildurra, eta jarri eizu oraintxe bertan.

Taldeko lana

ANAITASUNA aldizkaria hamabostero enfajatu behar da, korreo-

ra bidaltzeko. Lan hau egin ahal izateko, talde bat batzen gara. Nahi al dozu zuk ere talde honetako izatea? Deitu eidazu telefonoz eta emaidazuz zeure izena ta telefonoa; eta, lanerako eguna datorrenean, deituko jatzu. Nire telefonoa: 35 52 63 (eguerditan eta gauez).

Dei bat

Bilboko euskaldun guztiak ANAITASUNA-ren harpidedun izatea lortuko bagendu, hamabosterokoa izan beharrean, asterokoa izango lizateke. Dei berezi bat, ba, guztioi, harpidedun berriak bilatzen ahalegina egiteko. Bilbo eta huri handietako euskaldunak sakabaturik gagozenez gero, lotura bat behar dogu, eta lotura hori ANAITASUNA izan leiteke.

Urte Berrirako

Urte Berri hobeago bat nahi badogu, lan egin beharko. Etorkizuna geuk egin behar dogu. Zeuk, zeuok eta neuk!

Euskeraren etorkizuna geure eskuetan dago. Zeure eskuetan. 1971. urtea aurrean dogularik, guztiok zutik euskeraren alde!

XABIER GERENO

Gernika

Bertsolariak eta Markina

Apirilaren 12an, 8. aldiz, 8. urtez, ospatu izan zan bertso-larien batzarra Markinan.

Aurten, jai hau indarberritu nahian, hilabete aurrerago-tik hasi ginen gertakizunak egiten: bertsolari guztiei karta bana bidaldu, etorriko ziren ala ez jakin, hitzalditxo bat zeinek egin aurkitu, eta gainerako gauza batzuk antolatu, 189 bertsolari egin geuntsen deia Gernikatik, eta guk zuzenbide-rik ez geunkan 20 bat bertsolari Iriondok Loiolatik.

Erantzunak? Bai. Polito erantzun eben. Bertsolariak, ohi-turaz eta nagitasunez, alferrak direla jakin arren. Laurogeita-batek baietz eta hogeitamaikak ezetz. Gaietikoek ez dakigu gure kartarik hartu ura bezain beharrezko dogun aldizkari bat ateratzeko beharko liraken gai eta erak azaldu zituan. Aldiz-kari hau erutzen hasteko, probintzia bakoitzetik batzuen ize-nak eman ziren, honeek gero euren artean batzartu eta pro-bintzia bakoitzetik bat aukeratu eien.

Goizean meza, Lopategi eta Gorrotxategik bertso eder eta gaurkotasunez beteak eginaz, Eta Nemesio Etxaniz jaunak hitzaldi sotila* zuzenduz. Ondoren, Jose Mari Iriondok, guk bertsolariok loreak ura bezain beharrezko dogun aldizkari bat ateratzeko beharko liraken gai eta erak azaldu zituan. Aldiz-kari hau erutzen hasteko, probintzia bakoitzetik batzuen ize-nak eman ziren, honeek gero euren artean batzartu eta pro-bintzia bakoitzetik bat aukeratu eien.

Gero, aukeratuok osotuko dabe hasierako komisioa.

Ondoren, bazkaria eta edozenbat* bertso. Baina ez edoze-langoak, ezta edonork ere, nahi ebanak eta nahi ebanean bai-no. Gehientsuenek, zeredozer esateko eukenez, kantu bikain eta hitz neurtuz, euren barneko kezka eta arrazoiak azaldu zituen.

Garaia heldu zanean, gure urteroko Pedro Azkoitiak amaia eman euskun, oraindino puruak ketan geunkazala. "Agur Jaunak" abestuta, batak bestearen eskuak hestutuz, berriz nonbait ikusi arte, edo, luzeen ere, hurrengo urterarte agur eginaz etxeratu ginen, egun on eta onuragarri* baten gozo-tasuna gogo ta bihotzean genduala. Atsegingarria jai hau, jai atsegingarrikerik bada. Baina askozaz atsegingarriago lizateke oraindik, guri exenplo emateko etorri behar leukeen asko, euren gizontasuna eta batez ere euskaldun nortasuna ager-tuz, bertsolari guztion aurrelari izan behar leukeenak eto-rrri balira.

Urte osoa dauke, nahi badabe, egun horretan libre iza-teko. Atxakia bakar bat ere ez dot onartzen.

DE UN ORO

Tolosa

Jokatu da Tolosa eskualdeko* pelota txapelketa, eta ira-bazleak Saizar eta Aranzabe izan dira. Hauekin batean fina-lera Gabellanes eta Altuna iritxi* ziren. Txapelketa honetan, pelotazaleen iritzi, Galarza III.a izan da pelotaririk onena. Lastima, semifinala jokatzeko ari zirela, bere anaia gazteak, atzelaria zenak, eskuina galtzeal Hala ere, horrela jarraitzen badu, bere anaia Bautistaren antzera laster profesionalen artean ikustea espero dugu.

Eguberrietarako Beotibar pelota lekuan erremontista fa-matuena ikusiko ditugu: Lekunberri, Raul, Ayerbe eta Salsamendi III.a, Tolosako Ikastolaren alde jokatzeko, batez ere Salsamendi III.a, egun horretarako propio ari baita* pre-paratzen.

Halaber*, munduko txapeldunak diren Camy eta Four-nau, puntista frantsesak, hemengo pelotari batzuen kontra. Urteberri ondoren hasiko da, gure herrian, Euskal Alfabetatzerako saioa. Geure hizkuntza aurrera atera nahi badugu, kulturaren bidez izanen* da eta alor* honetan guztiok izanen dugu zerbaiten beharra.

Sondika

Igande* guztietan, 8 ta erdietan, euskeraz egiten da meza gure herrian. Eta orain itaun bat: Ez ote dago euskaldunik Sondikan? Edo ateok ote gara euskaldunok? Osterantzean, ez dot hau ulertzen. Negar egitekoa da eta ez geldirik jarraitzeko. Mesedez, sondikar euskaldunok, 8 ta erdietako meza-tara guztiok!

Larraun

1. Bizi hobe bat aurki dezaten ondorean datozenak, gaurko gazteak jarri ditzagun geroko bide zuzenak. Argitasun bat eman deigula gure Jaungoiko laztanak, gure tartean aukeratzeko komeni diran gizonak.
2. Gaztedi egizalea ezin dute ongi ikusi; modu honetan ezin diteke urte askotan bizi. Ezinagaitik ez gintuzten jakituriaz jantzi; hau konpontzea ezin liteke hauen eskutan utzi.
3. Larraungo herritan gaur ba dago hamaika gorabehera; gure izate danak hamar gizonen bastan dira. Garaia dala, egin dezagun komeni dan aukera, anai maiteok; bestela hemen betiko galduko gera.
4. Egiten dana ez dezagun utzi hauen eskutan, bestela luzaro bizitzerik ez dugu izango lur hontan; sutan jartzen zait odola eta naigabetzen naiz egitan, baserriaren etsaiak jarri nahi dituztela kargutan.
5. Egia lagun zitala dute: hori dugu aitormen. Gaizki ikusten gaituztela: hori dago nabarmen. Okerrak konpontzea hobe izaten da lenbailen, derrior ere zerbait egin beharra daukagu hemen.
6. Radioa eta izparringiak ari dira irainez; baserriarren pazientzia egina dago gainez. Ongi bizi dan zuzendariak hauxen digu ordainez, kontseilu onak nonnaitik eta laguntza berriz mingainez.
7. Baserriarrak beti izandu gera errukarrik; lur lanean ari danentzat gaur ez dute eskerrik. Bizkarra ibai izerdiakin, gehienean alferrik; baserriak laguntza dauka radiotikan bakarrik.
8. Bide okerra jarri nezake bide zuzenaren ordez; beste norbaitek juzgatu beza askoz ezagun hobez. Larraungo lagun maiteak, eskatzen dizuet mesedez, esan zaidazue gai honetan arrazoi dudana ala ez.

Ipuinak

Bilboko "Cinsa" musika etxeak disko berri bat aterako dau laster, ipuinekin osotua. Xabier Kintanaren ardurapean, "Txano Gorritxo" eta "Hiru Txarritxoak" deituriko ipuinak grabatu dira, Txabi Villaverde gaztearen musikazko lagun-tzarekin.

KOMUNISMOAZ IDATZI

Euskal Herrian idazten ari* denak eskuetan daduka sozialismoaren problema. Nahi ta ez hori. Beren modura, batzuek isildu eginaz likidatzen dute arazoa. Beste batzuek nahiago dute problema horrezaz agiri jardun, eta, aukera haundirik eduki* gabe egin behar izan arren, salatu ere egiten dira nolabait konpontzen. Utz ditzagun alde batera isilduaz mintzatzen direnak.

Baina sozialismoa, eta areago* komunismoa, ebidente behintzat ez dira orain arte: haren alde edo kontra egon liteke, eta ez dira kontra egote guztiak ere berdinak. Utz ditzagun, hala ere, kontra daudenak ere baketan.

Komunismoaren edo sozialismoaren alde egotea, ostera*, kontra egotea bezain zentzugabeko nahiz zentzudun izan daiteke, zein sozialismo edo komunizmoren aldezkari izan argitu arte. Komunista izeneko Alderdiren baten barruan edo hurrean egonez gero, komunismoa bere Alderdlarena bakarrik dela erabakita dadukanak, problemarik gabe izendatuko du hau, eta, hala ere, gauza konkretu bat aipatzen du. Aitzitik*, Inolako Alderdiren funtzioan hartu gabe alpatzen den komunismoaz (hots*, komunismo «soilaz») idazteari buruz, zehatz-zehazki berezi beharra dago bi jokabide behintzat.

Lehenengo jokabidean komunismoa beste argitasunik gabe ta soilik* aipatzen da, orokarki*, eta, hemen ere, komunismoaren barruko ezberdintasun eta «sektak» haintzat hartu gabe. Bistan dago antikomunismoz Intosikatutako Jende aurrean horrelaxe abiatu beharra dagoela; eta 60-65. urteetako Euskal Herriaz ahaztu ez denak ba daki antikomunismoaren kontra zenbat lan egin beharra zen. Gero ere batzuek jokabide horrexekin jarraitu dute. Rikardo Arregik, adibidez, maila horretan burutu zuen bere lanik gehiena. Horregatik barka dakizkeo, bestela sinplekerla hutsa lirakeen esaldi asko ta asko. Horrelako lanak komunismoaren printzipioak adierazi nahi ditu ezeren aurretik, eta orokarki egin ere, kontzientzia sortzearen aldiari dabil eta. Lan honen egitama* eginbeharrak ezarrita dago, eta anti-antikomunismo baino oso guti gehiagorena de ezinbestean. Rikardo Arregiri manikeismoa salatu ziotenak, ondo igarri zioten haren puntu flakoa.

Beste jokabideak egoera konkretua hartzen du bere reflexioaren abiaburu. Eta komunismo konkretuaz jardutekotan, oraindik singularrean pentsatzea, edo apostolutza edo inuzentziaren mailarik altuena besterik ez da. Ez dago sozialismo edo komunismo batik, ez nazioartean eta ez nazioartean, ez errealdadean eta ez asmoetan. Beraz*, problema konkretuak azterkatzekotan, ezberdintasun ezberdin horien barrura begiratuz egin beharko da. Nik ez dakit, komunismoaz-eta orokarki* mintzatzeko garala honezkero arras* pasatuta ote dagoen gure artean; baina baletz Iruditzen zait. Areago*: garai haren beharrik batere ez gurela edukiko uste dut, konkretutik abiatuz lan egiten asmatu izan bagenu. Nolanahi ere, Jadanik* ezberdintasun konkretuekin ez konfrontatzerik ez dadukagula sinestuta nago. Eta, nire ustez, erreformismoaren edo errebisionismoaren problema da ezberdintasunotan Inportanteena. Erreformismoak eta anti-erreformismoak elkar kondenatzen dute Europa (Europara muga galtezen), eta biek ukatzen diote elkarri komunista izena. Hala ere, nik neure buruari balmena emanda dadukiot oraingoz biak komunismotzat hartzeko.

Oraingoz nire buruari emandako beste balmen bat, Alderdiren batean sartu gabe, alderdi hartzekoa da. Problema honetaz Non egon behar dau idazleak? artikuluan (ANAITASUNA, 194. zenbakian) eta beste idazlan batzuetan ere neure usteak azalduta nago. Zer egin behar du idazleak: komunismo soil* bakarrik predikatu, ala komunismoa Alderdiren baten zentzuan bakarrik azaldu eta irakurleari zer aukera ahora eman, ala hasieratik beretik, ezberdintasunak hor daudela ikusirik, problemak eta diferentziak dauden legez* erakutsi eta irakurleari utzi hautaera?

Azkeneko hau egiten duenari laster leporatuko zaio antikomunismoaren sanbenitua. Zeren* eta problemak erakutsi eta kritikatu beharrean baitago*. Lan gaizki pagatua hauxe, antikomunismoaren itxura ta arrisku horixe beregain hartuta ibili beharko baitu* beti. Bere problemarik haundiena, hala ere, problema batzuk edo haien alde batzuk azalduz, beste asko isildu egin beharrean datza*. Eta isildu ere, dena batera esaterik ez dagoelakoxe besterik ez. Idazlea, bere gaiak hautatzekoan*, zenbat okasiozko kariren* artean da-

bilien, berriz, ezer idatzi duen edonork espermentatu du. Eta ez da hori idazlearen mugadura bakarra.

Idazleak gauza bati ezin sekula amore emango dio: komunismoari komunismotik begiratuz egin beharko dio bere kritika (baina zer da komunismoa?). Komunismoaz orokarki* bakarrik diharduenaz ezer ez dakigun legez, honez ba dakigu zein komunismo konkretu nahi duen eta zein konkretu ez. Ez da komunismoaren akademiko edo obisporik. Gura ez duen komunismo horren antikomunista dugu, hortakoz*. Baina lehenengo maila abstraktuan geratuta, hurrengokoari antikomunismoaren akusazioa egitea logikan kabitzen ez den ipuina da. Ez gehiago ez gutiago. Zeren* eta praktikan haren-tzat komunismoa bat baldin bada, honentzat ez dago komunismo batik batere, ugari baino.

Eta zer esan euskal liburu ta erreblista ofizialeko literaturari begiratuta? Gure anti-antikomunista gehienak inuzentean inboan bapo lo hartuta daudela. Zeinek alpatu dio gure herriari inoliz, komunismoaren barruko XIX. mendetik* hasi ta 1971. urterarteko problemarik eta eskola ezberdinik? Eta herri bakoitzak bere sozialismoa mantatu behar duela esaten da gero... Gure idazleek nahiago dukete* herriari zer egin diktatu, herria baino herriago baitira*. Edota gaztainak sutatik ateratzea besteren batentzat utzi.

Komunismo ezberdinak elkarri konfrontatuz diharduen idazlearen zoritxarra da, berak bere ikusgunearekin* eta bere modura kritikatzin dituen komunismoAK kritikatzekoan, beste ikusgune eta beste moduekin EDOZEIN komunismo kritikatzin dutenekin batera azaldu beharra. Itxuraz behintzat.

Irakurleak, artikulua hau zergatik idatzi den pentsatzen badu, berez hartuko du susmoa, ni neu itxura horren arabera* behin baino gehiagotan juzgatzen narabilteia. Baina gure literaturak, beti jeneralidadeen mailan ibili nahi ez badu, ez daduka jeneralidadeak baino zerbait gehiago esan beste erremediorik.

José Azurmendi

daduka, dauka
dadukiot, daukatsat
dakizkeo, daitekioz
daude, dagoz
dio, deutso
diote, deutsoe
ditzagun, daiguzan
zait, jat
zaio, jako
zioten, eutsoen

«Chiquito de Mallavia»ren desafloa

«Ni, Mallabiko Florentzio Sarasua, 44 urteko harrijosotzailea naiz. Hamar arreako harri kubikoarekin, Euskal Herriko edozein indartsuri jokatu neuskio, berrogei urtez gorakoa bada, kondizio honeetan: ekinaldi bakarra, 30 minutuzkoa, lana denbora berean egiteko, batak hegal batean eta besteak bestean». Hauxe dino «Chiquito de Mallavia» harrijosotzaileak. Inor presentatzen bada, deitu Ermura, 736 telefonora.

«ANAITASUNA BIZKAIA»

Zuzendaria: Anjel Zelaieta Gisasola
Idazkolaria ta banakolaria: Jardin Txikerra, 1
Bilbao (12).
D. L.: BI - 1.753 - 1967
Imprimatzailea: Imprenta AMADO. Bilbao.
Irarlea: RALI, Bilbao.

Euskal aditz batuaren sariketa

«Herri Gokoa»k antolatu zuen euskal aditz* batuaren sariketa, bost lan presentatu dira. Eta Euskaltzaindiaren eskuetara pasatuak dira, lanik onena zein dan epaltzeko. Sariketa hau 100.000 pezetarekin horniturik dago.

Kantarien «cassette» berria

«Herri Gogoa»k prest izango dau laster bere lehenengo «cassete»a. Lekuona, Lete, «Oskarbi», Laboa, Lertxundi, Lurdes Iriondo, eta Irigarai abeslarien kantuekin osoturik etorriko da.

Eñaut Etxamendi eta Larralde kantarien disko berria

Laster agertzeko da baita Etxamendi eta Larralderen disko berria ere. Kantu honeek izango ditu: «Garaztarra naizela», «Kattalin», «Tiki taka», eta «Gerezi lore». Disko hau ere «Goiztiri» etxeak argitaratuko dau.

«Irakur Sail» lanean

«Irakur Sail» argitarazleak prest izango dau laster «Ludlaren Kondaira». Ondoren argitaratuko ditu: «Arrotza», Albert Camus-ena, eta «Atsotitzak» eta «Neurtitzak», Oihenarte zuberotarrarenak.

Gau eskolak Lekeition

Lekeition gau eskolak ematen dira, euskera ikasi nahiz landu gura daberen neska-mutilentzat, astearte* asteazken*, ostegun* eta ostiraleetan*, iluntziko 9etan, umeen ikastolan.

Euskal Jaia Donibane Lohitzunen

Lapurdikoko Donibane Lohitzunen, Euskal Jal bat ospatu izan da, ikastolari laguntzeko dirua batzeko. Parte hartu eben Ziburuko «Arrantzaleek», Sarasola, Eñaut, Larralde eta Benito Lertxundi kantariak, eta Xanpun eta Esponde bertsoariak. Ikastola horretan 22 haur* dabilza.

Beriat Latxague jaunaren liburu berria

Aldudar inginadore* gazte honek liburu bat argitara eman berria dau, «Baigorriko Kantonamendua» izenarekin. Eskritore hau, aldarra izatez, orain Donapaleun ari* da lanean.

«Gure almanaka 1971»

72 orrialde osotzen ditularik, agertu berria da Baionan «Gure almanaka 1971» izeneko egutegia. Egutegiaz gainera, hainbat gauza jakingarri ditu. Eskatzekotan: «Musée Basque», 1 rue Marengo, Bayonne.

Norberto Almandoz musikalaria hil da

Norberto Almandoz Gipuzkoako Astigarragan jalo zan, orain da la 76 urte. Apaiz egin ondoren, musikako ikasketak egin zituan. Sevillako katedraleko kalonje* ta organo jolea izan da hainbeste urtean, eta Madrileko «ABC» egunkarian musikazko kritikalaria. Sevillan bertan izan da lurperatua.

«Ardo ta ogi, Martxelin» liburua

Jose Maria Satrustegi euskaltzainak* euskeraturik, Jose Maria Sánchez Silva jaunak «Marcelino, pan y vino» izenburuarekin egin dako liburua agertu berria da. Batez ere ikastoletako haurrentzat*, gogoko izanen* da liburu hau. Erostekotan: Plaza del Castillo, 28 Pamplona. Edota: Jose Maria Satrustegui, Urdiain (Navarra).

Egutegi bi

Etxe komertzialari ospetsu biren egutegiak* ditugu begien aurrean. Bata, «Sony» etxearena. Eta bestea, «Caja Laboral Popular» dalakoarena. «Sony» etxeak, Euskaltzaindiaren azken Irakatsiei jarraituz, euskera berdintsu eta osotu bat darabil. Bestalde, teknikazko mundu moderno bat azaltzen deusku; beharbada gezurrezkoa eta zapaltzailea, baina modernoa. «Caja Laboral Popular» etxeak, oster, euskera aldetik anarkia haundi baten menpean dihardu; eta, gainera, irudien aldetik, antzinako mundu ametsezko batetara eroan nahi gaitu. Inori Irakatsirik emateko gurari barik, baina geure lirtzi apa-

la jakin arazi nahlan, «Sony» etxearen Jokoa begikoago dogu sail honetan.

Gabonak

Gabon jalak ospatzerakoan, apaiz gazte batl igaz entzuna gogoratzen jaku: «Ez da berdin Kristoren jalak ospatzea eta kristorenak egitea».

Erregeak eta ikastolak

Euskal Herriko zenbalt* ikastolatan Erregeen arazoa alpatua izan da Gabon aurretikoan. Gurasoak, umeen poz eta ilusioari jarraituz, Erregeen alde dagoz. Irakasleak, oster, jal horretako engainu, gezur eta harrokeriaren kontra dagoz. «Ilusioa —dinoe Irakasleek— izan ere gozoa da. Egla, berriz, mingotsa, baina ederragoa».

Monzon eta Olasotar Telesfor

1904.ean jalo zan Bergaran. Beraz*, 66 urte ditu orain. Lege ikasketak egina da. Urrundik eta Gudarien Egnak olerkiak idatzi ditu. Baita teatro lan honek ere: Lau kantari eta txori bat, Gure behia hila da, Menditarak, Hazparneko anderea, Harpeko bozkarloa, Ur garbi, Behorraren ostikoa, Eneko Bizkaia, eta Maria Lorka. Bere Itziarren Semea abestia oso entzuna da.

Larzabal apaiza

Larzabal apaiza Azkainen jaloa da, 1915. urtean. Orain, Sokoako erretore da eta euskaltzain*. 100 bat teatro lan egnak ditu. Adituek dinoenez, teatro egilerik hoberenetakoa da, Monzon jaunarekin batera. Gainera, HERRIA aldizkarian idazten dau astero.

Euskal Herriko harrijasotzaileen txapelketa

Iragan dan abenduaren 8an, Euskal Herriko harrijasotzaileen txapelketa ospatu izan da Gipuzkoako Zarautzen. Parte hartzaileek, 5 minutuko txanda bitan, 100 kiloko harria leporatu behar eben. Gipuzkoako Arronako Urrestillak irabazi eban, 91 aldiz harria leporatu ondoren.

«Euskal Esku-Langintza» liburu berria

Izenburu honekin liburu bat argitara eman dau Jon Garmendia Larrañagak. Hitzaurrea, euskeraz hau ere, Jose Migel Barandiaran jaunarena da. Euskerazko textoaren alboan erderazko itzulpena dakar.

Euskal Kultur Mintegiaren oharra

Deustuko Euskal Kultur Mintegiaren* partez, hauxe jakin arazten dogu: «Deustuko Unibersidadean oraintsu arte eman ditugun klaseak eten behar izan dira, guztiok dakiguzan gertakariak* direla kausa. Alfabetatze eta kulturazko azken irakastaldiak, programa osoa bukatu* arte, urtarrilaren* 11tik aurrerantzean emanen dira, Ikasle guztiei erregutzen deusegu, ahal izanez gero, egun horretatik aurrerantzean, bertara joaten segi daitezten*».

Monjak euskera irakasten

Erandioko «Nuestra Señora de la Compasión» deituriko kolejoan, euskerazko eskolak ematen dira. Aurretiaz inkestak* bat egin izan da, eta baiezkoa eman ebenak honenbeste izan ziren: Batxillerreko 1.ean 33, 2.ean 20, 4.ean 35, 5.ean 9, 6.ean 8, 7.ean 7. Gaztetxoan kursoetan, 1.ean 88, 2.ean 50, 3.ean 48, eta 4.ean 75.



ELAIS ALAI
YURRE

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra
Astegunez: 7.tatik 11 ra.

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

Zalantzak Uxatzeko, Gutun Irekia

Martin Ugalderi

Martin adiskidea; oraintsu, "La Voz de España" egunkariaren *Correo de las Letras* sailean (1970-XII-6) dei antzerako ohar* bat izan duzu, zeure "Las tres caras de Dios"i buruz egin duten aipamenean, Erderaz anitz* ederrik emateko gauza omen* zara, eta bildur dira gure inguruan galduko ote zaren.

Erderazko literatoek beti pentsatu dute, euskeraz ez dela posible ezer interesanterik ematea. Guk, berriz, erderazko idazlerik, euskeratik erderara ondo itzultzeko gauza direnak anitz* nahi genituzke, eta ez euskeraz guk zer eta zelan idatzi behar dugun esaten duten horietakoak. Baina itzultzaileak bai, ilunpean ditugun zenbait* lan kanpora azaltzeko (ilunpean egotea bada, guk geure artean bakarrik ezagutzea). Zeren* hori bada mundutarragoak izatea, lan interesante asko behar bezala itzuli ahal duten erdal idazleak behar ditugu. Orduan bakarrik izango da posible gure literatura non dagoen ikustea, eta orduan konturatuko dira asko, herbestetakoak behinik behin, hemengo gauzak erderaz ematen dituzten erdal idazleetatik aparte ere, ba dela zerbait merezi-garri, eta gure hizkuntza jatorrean gainera.

Zuk behintzat, hartu duzun bidetik, gauza on asko eskaini* ahal duzula iduritzen zaigu, Erdal literaturak zerbait galduko luke beharbada, baina euskal literaturak ez du ezer galduko. Eta guk euskal literatura nahi dugu, Herria gorde nahi dugu, Euskal Herria, bere nortasun osoan gordeko badugu.

Gogoan izan, otoi, antzerki hari eman zenion izenburua: *Ama gaxo dago*. Eta lamien* deiei ez jaramonik egin.

Erderaz euskeraren alde esaten diren hitzak, gehienetan hitz hutsak, Zuk, euskeraz ahal duzu, Ondo ere ondo gainera. Eta guk exenploa eman behar dugu, Martin.

Ama gaxo dago. Euskerazko osagarriak behar ditu. Euskerazko hiletarik ez.

Honenbeste ba dakizun uste osoa dut, Agur, adiskide bi-hotzekoa.

JUAN SAN MARTIN

«Frances de Javier» liburua

"Institución Príncipe de Viana" erakundeak* argitara eman berri dau, Jose Maria Rekondo jaunak "Frances de Javier" izenburuarekin egindako liburua. 355 orrialde ditu eta hainbat irudi, eta nafarrek azken hiru mendeetan* izan daben bizitza aipatzen dau.

Mondragoeko SUDC, ikastolaren alde

Mondragoeko SUDC erakundeak* bertako ikastolaren alde diru laguntza sendo bat eman izan dau. Honela, ikastolako gelak gehitu egingo dira laster batean.

Haizkolarien txapelketa

Joan dan abenduaren 13an ospatu izan zan, Nafarroako Donezteben*, Euskal Herriko Haizkolarien Txapelketa. Azpeitiko Jose Inazio Orbegozo (alias "Arria II.") izan zan irabazle.

KONTU IZAN

IRAKURLE ASKOK ESKATU DAUKUTE ALDIZKARI HAU ZUZENTZEN DUGUNOI, EUSKERA ERRAZA ERABILTZEKO, ERRAZA HITZEN ALDETIK, ERRAZA JOSKERAREN ALDETIK: EUSKERA JATORRA, BAINA ERRAZA ETA ARGIA.

HORI DELA TA, EUSKERAREN LARRIORDU HONETAN, DEI SUTSU BAT EGITEN DIEGU IDAZLE GUZTIEI: HAINZAT HAR DEZATELA GURE IRAKURLEEN ESKARI BALIOTSU HAU.

S. LARREARI ERANTZUNA

ANAITASUNA-ren 200. zenbakian zuzk izenpetutako artikulua irakurtzeak harriturik utzi gaitu. Gu, neska-mutil talde bat gara. Zure ideiak oso abstraktuak direla uste dogu, eta horrexegatik nahaste haundia sortarazi leikeezanak. Emakumerik gehienak ez dagozela zapaldurik, dinozu. Hau, aldrebes izango da. Guk gehienak alienatuta ikusten ditugu.

Zapalkuntza hau era bitakoa da: bata gizarte estrukturatetik, eta bestea gizonengandik datorrena.

Ez dogu ikusten zergatik gizarte sozialista bategandiko zapalkuntza haundiagoa izan leitekenik. Ez dozu esaten zapalkuntza hori zer puntutan agerten dan. Esaterako, zapalkuntza guztiak ez dira neurri berdinekoak, eta ez dabe kalte berdina egiten.

Emakume bat alkate izateak ez dau gizonik zapaltzen, emakume dan aldetik, kargu hori daukan aldetik baino.

Gizon eta emakumeak lan berdinarekin berdin ordainduak diren enpresa horreek guk behinik behin ez ditugu ezaiztzen. Non dira enpresa horreek?

Azkenez, emakumeen horrako zapalkuntza hori egia ez bada, zertarako zure kontseilu hori: "Berriketak alde batera utzita, lanean hasten bagara, hobeto biziko gara"? Gure ustez, alienaziorik ez badago, ez dago lanean hasteko premiarik.

Baina alienazio hori badago, konpondu egin beharko dogu, eta konponbiderik onena ez da sekula ere errealidade triste hau izkutatzea izango.

Askatasuna sistema guztietan lortu leitekela, bai... Gizon bakoitzaren nortasuna non formatu behar da? Zeintzuk instituzio dira pertsona hori hezi* behar dabenak? Gure ustez, sistema konkretu batzuek zuzendu eta kontrolatzen ditue instituzioak, eta *giro ixar edo on* horretan hezitzen gara, nahi ta nahi ez.

ARTAPE (Ondarroa)

Nafarroari buruz hitzaldia Parisen

Helene Gueraçague-k hitzaldi bat eman izan dau, Parisen Euskal Etxean, Nafarroari buruz. Helenek, jaiotzez Donapaleutarra* eta orain Iruñean irakasle, esan eban nafarrei Ipar Aldekoekin harremanetan jartzea komeni jakela, eta Nafarroa "euskalduntzeko" ikastolak indartu behar direla.

Eloy Benito jaunaren mintzaldia Iruñean

Oviedoko Unibersidadean Espainiako Historia irakasten dauan Eloy Benito jaunak mintzaldi bat eman izan dau Nafarroako Unibersidadean "Lope de Estúñiga, un poeta navarro del cancionero castellano" gaiari buruz. Poeta hori XV. mendekoa* zan, eta gaztelauen alderako jokoia egin eban, Lope de Ayalaren antzera.

«Euskal Herriko Meza»

Disko haundi bat aterako da laster, "Euskal Herriko Meza" izenburuarekin, Barturen pasiotarraren gidaritzapean. 300 pezeta balioko ditu, "Orfeón San Antón", txalaparta, txistulari eta abarren laguntzagaz egindako disko honek.

hogeï urte, hogeï

EMMANUEL MOUNIER

Hogeï urte, Emmanuel Mounier hil dela. Hitzaldiak eta omenaldi gisako lanak leku askotan azaldu dira. Egun batzuk direla, Frantziako telesbistak haren pentsaera eta jokaerak aztertu nahi izan zituen, beraren aspaldiko lagun batzuen iritziak bilduz*.

Oroikarri* hutsa ote da Mounier? «Esprit» mugimendu eta aldizkariaren fundatzailearen pentsamendua aski* ezaquna ote da? Ba ahal du Mounierek (eta pertsonalismoak) gaurkotasanik?

Baletzean nago ni. Mounieren bizitza, harrigarria zaigu. Historiegi batek telebistatik esan zuenez, Mounier «basati» bat izan zen: alegia*, gauza guztiak eguneratu nahi zituen, gehiegikeria guztiak baztertzen zituen. Oraindik ezagutzen ez ditudan Frantziako marxista batzuek esan dute, Mounieren pentsamenduak ez duela egun* bere gaurkotasanik galdu.

Bizitza

- 1905, **apirilak 1.** Frantzian, Grenoble-n jaiotzen da Mounier.
- 1924. Unibertsidade ikasketak hasten ditu. Baina ez, bere gurasoek nahi zuten botikario bideari jarraituz. Filosofia egiten du. Gero maisu izango da.
- 1932, **abuztua.** Font-Romeuko biltzarrea. Biltzarre horretan sortzen da «Esprit» mugimendua.
- 1932, **urria.** Mounierek fundatutako «Esprit» pentsamendu-aldizkariaren lehenengo zenbakia ateratzen da.
- 1935. Paulette Leclercq-ekin ezkontzen da. Hiru alaba izanen* ditu.
- 1941, **abuztuak 25.** «Esprit» aldizkaria debekatua da.
- 1942, **urtarrilak 15.** «Combat» mugimenduan parte hartzeagatik, Mounier gartzelan sartzen dute. Barruan, 20 eguneko gose huelga bat egiten du. Liburuak ere idazten ditu.
- 1945, **urria.** «Esprit» berriz ateratzen da.
- 1950, **martxoak 22.** Gauetz, bihotza gelditurik, Mounier hiltzen da.

Liburuak

- 1935: Révolution personaliste et communautaire.
- 1936: De la propriété capitaliste à la propriété humaine. Manifeste au service du personalisme.
- 1939: Pacifistes ou bellicistes?
- 1942: Traité du caractère.
- 1944: Affrontement chrétien.
- 1946: Liberté sous conditions. Introduction aux existentialismes?
- 1948: L'éveil de l'Afrique noire. La petite peur du vingtième siècle. Le Personalisme.

Pentsaera

Mounier pertsonalismoaren aita da. Hobeto esanda: pertsonalismo komunitarioarena. Mounieren pertsonalismo hau, individualismoaren eta totalitarismoaren kontra bezala sortzen da. Ezin da pertsona aldatu, estrukturak aldatzen ez baditugu. Alferrik da estrukturak aldatzea, pertsona ez badugu kanbiatzen. Pertsonalismoak, pertsona eta estructures, biak besarkatzen ditu.

Mounier pertsonarengandik heltzen da pertsonalismoa. Eta ez pertsonalismoaren bitartez pertsonarengana. Horregatik, haren pentsaera eta jokabidearen artean ez dago etenik, ez dago zulorik.

Mounierentzat, Hegei-entzat bezala, intentzioaren egia, ekintza da. Baina ekintzaren egia, intentzioa.

Mounieren pentsamoldean, pertsona etengabeko elkarrizketa bat

da. Elkarrizketa Jainkoarekin, elkarrizketa gizartearekin, elkarrizketa norberarekin.

Ikusten da: Mounieren pentsaerak, ez bakarrik batasun harrigarria, osotasun miresgarria ere ba du.

Inguruko gizarteari buruz, «desordenu eratu» (desorden establecido, désordre établi) esatera famatuaren aita da.

Profeta

1930. urte inguruko krisia, moral krisia zela zioten* batzuek; beste batzuek, ekonomia krisia zela. Mounier sustraira doa: zibilizazio krisia dela erabakitzen du. Eta hala zen, gaur ikusten dugunez.

Ba dakigu Utopiak mugitzen duela historia. Mounierek utopia handi bat sortarazi du: gizona eta gizartea (biak batean!) berritzea. Gizon berria gizarte berrian: hau da haren helburua*.

Fasismoaren, nazismoaren eta kapitalismoaren etsai* amorratua da Mounier. Amorratuenean amorratuena Gizon batek bestea menderatzea eta zapaltzea ezin du ikusi.

Mounier ezkertiarra da. Marxismotik asko ikasten du, berak dio. Baina antimarxista da. Marxismoaren kontra dago, ez honek baieztan duenagatik, ukatzen duenagatik baino. Marxismoaren trascendentziarik eza ez zuen onartzen. Beste izen bat datorkit hemen gogora: Rikardo Arregil

Kristaua

Kristau bezala, izpiritu-bizitza sendoa zuen Mounierek. Haren bizitzaren alderdi hau ahaztu gero, beraren giza-burrutak eta ekin-tzaren sentidua eta baliogoa* husturik uzten ditugu.

Komunistekin eta ez-kristauekin zuen harremana ez zen ergelkeria, ez zen kobardekeriaren ondorioa. Eta bai ekumenismoa, sinismen zabaltasuna. «Esprit» mugimendu eta aldizkariak danetatik bildu* zuen: fede kolore guztietakoak eta fedegabeak.

Mounier zintzoki eta leialki sinesten zuen kristianismoaren «Berri Onean». Eta fede honen arabera* bizi.

Eliza askatua eta garbia nahi zuen. Eta Elizaren azal-estruktura hori loturik ikusten zuenean, askatzera jokatzeko zuen. Hain zuzen, Elizari zion maitasunagatik. Esate baterako, Espainiako Elizak garai hartan hartu zuen bidearen kontra zegoen. Eta abar...

Depierre apaiz-langile eta haren adiskideak esan duenez, Mounier bizi izan balitz, Kontzilioko lehenengo laikoa izango zen. Dutarik ez.

Mounierek dio:

«Wall Street-eko diru beharpenarekin 1929.ean hasi eta bigarren gerra haundiraino jarraitzen den krisitik sortzen da pertsonalismoaren mugimendua. Bere pentsaera, 1932.ean sortutako «Esprit» aldizkariaren bidez azaltzera ematen du. Zerk behartu gaituen gure pentsaera agerraraztera? Krisiaren aurrean, askok sakontasuna ezkutatu egin nahi zuten, eta gehienez ere bi esplikazio ematen ziren.

«Marxistek hau zioten*: 'Ekonomiaren krisi ezaquna, estructures krisia. Egin ekonomia, bai, eta gaixoa sendatuko da'.

«Moralistek kontrara zioten: 'Gizonaren krisia, ohituren krisia, baliogoa* krisia. Alda gizona, eta gizartea sendatuko da'.

«Gu ez ginen pozik ez batzuekin eta ez besteekin. Izpirituzaileok eta materialistek gaitz eta okerbide berean erortzen* zirela iruditzen zitzaigun; alegia*: dudazko kartesianismo bati jarraituz, gorputza eta arima, pentsamendua eta ekintza, homo faber eta homo sapiens apetzat* banantzen zituztela. Guk hau genioen*: 'Guretzat, krisia, batera ekonomiarena eta izpirituarena da, batera estructures-na eta gizonarena'. Guk ez genuen Pégyu-ren hitza bakarrik hartzen: 'Erreboluzioa morala izango da, edo ez da izango'. Guk zehazkiago esaten genuen: 'Moral-erreboluzioa ekonomikoa izango da, edo ez da izango. Ekonomia-erreboluzioa morala izango da, edo ez da deus* izango'».

JOAN MARI TORREALDAI

zalgu, jaku
zegoen, egoen
zion, eutsen
zitzaigun, jakun

OSAGILEAK, BEHARGINAK AL DIRA?

Interbista hau ez dago abeslari edo artistaren bati egin da. Ba dago behargin legez kontsideratu barik dagoen behargin* talde bat: osagileen* saila.

Jende askok ez ditu "doktoze" jaunok behargintzat hartu gurako. Nik egunero ikusten ditudanok, hala ere, edozein beharginek baino lan-egun luzeagoa ta gogorragoa daroe, ki-rofanoaren eta gaixoen ohe-buruen artean, atsedeen barik, arduraz beteta.

Gizarteko behargin taldeetan, bizitarik prozentualki laburrenatakoa osagileek dauke Alemanian; eta horrek zerbait esan gura dau. Lan gogorra da...

Münster-eko Ortopedia Kliniketan, ba dago zuriz jantzitako holako behargin euskaldun bat: Bitor Gaubeka, gudu aurrean euskerazko liburuen argitarazle legez ondo ezaguna zan' izen berdinekoaren semea. Egunero, bere operazio bat edo biak, gaixoen bisitak, diktamenak; eta iluntzero, estudioa, bere umore ona ta kortesia inoiz galdu barik.

Doktoze Gaubeka laster hasiko da Bilbon bere kontura lanean. Galdera batzuk egin deusadaz, hemengo Osagile-Zuzendariak behargin zintzo ta lehiatsu* eta esku aparte trebeko* operatzaile legez goraiatu dauan bermeotarrari.

—Zuek, ikasle denboran, herriagaz zerikusirik barik bizi zaree jeneralean, klausura sozial batean legez. Zeintzuk dira zuen problemak, atzera herrian sartzeko eta herriagaz behar egiteko orduan?

—Lantegi ona bilatzea ta holakoak kenduz gero, herriaren hizkuntza jakitea da lehenengo problema. Osagile euskalzeak egon dira eta ba dagoz orain ere. Baina, midizina ikastekoan, euskaldun mutil asko ta askok ahaztu egiten da be euskera.

Gero, jendeagaz erraz berba egiten jakin behar da, konfiantza sortzeko, eta gaixoen idiosinkrasia ta pentsakerak ezagutu. Jende askok jaun bati legez begiratzen deutso osagileari, behargina dala ahaztuz. Eritzi horrek kalte asko da kartso herriaren osasunari.

—Eta ez al da egia, behargin baino jaunago zareela?

—Ez. Kasu batzuk aparte, eta zein ofiziotan ez dago kasu txarrik, osagilea aurren aurrenik behargina da. Horrek ez dau esan gura, osagileari ere bere lanak izakeraren tankera* berezi bat ezartzen ez deutsonik, munduko beste edozeini legez, berdin berdin.

Zergatik utzi dozu Euskal Herria?

—Nik ez dot Euskal Herria inoiz "utzi". Nik egin gura dodan lanerako, Zaragozan ikasten egon ondoren, Austrian eta Alemanian jarraitu dot neure espezialidadea. Gizonak unidade izan barik ere, bakoitzak daki gizarteari zelan zerbitzatu behar deutson. Nik ortopediagaz egin gura neuke. Eta horretarako, hona etorri behar izan neban.

—Esango zeunke zer dan Ortopedia?

—(Erdi barreka). Zelan esago deusut... Egoteko ta mugitzeko, organismoa azterkatzen eta zaintzen dauan jakintza da Ortopedia. Hezurretako, muskuluetakoa eta artikulazioetako gaitzek arduratzen gaitue gu. Esaterako, artrosiak (erreuma esaten jakona), gorpuzkeraren deformazioak, muskuluek euren arteko jokoak ez egitea, edo euren arteko koordinazioa galdu badabe, eta holan.

—Holako gaitz asko al dago Euskal Herrian?

—Alemanian baino gutxiago, uste dodanez, baina asko hala ere. Baina jende askok, lotsa dalako edo, ez dau osagileagana joan gura izaten. Jendea hezitzen*, lan asko egin behar da, eta eskolan batez ere. Osagileagana joan eta ezer es dalka esango ote deutson lotsa dauka jendeak, horrexek gauza pozgarria izan behar leukenean.

—Zer egin leiteke, gaitz horreek ez harrapatzeko?

—Profilasi jeneralik ez dago. Gaitz asko jaiotzatik, akzidenteetatik edo zahartzarotik dator. Horregatik, prebenitzeko midizina ere ezberdina da. Midizinazko herri-kultura zabaldu beharko lizateke, jendeak bere burua zaintzen jakin daian, eta hau ere eskoletako obligazio bat iruditzen jat. Baina hori midizina guztiaren problema da.

—Jendeak zuengana joan gura ez badau, ez ote da, zuek garestieglak zareelako, eurak lotsa direlako baino gehiago?

—Hara: hemen Alemanian jende asko dabil lanean, Espainiatik etorrita, amaren edo senideren baten operazioa pagatzeko...

—Eta zer deritoxozu?

—Penagarria dala, zer gehiago esango deusut... Midizina sozializatu egin behar lizateke.

—Inglaterra sozializatuta dago, baina ez doa ondo.

—Ondo ta ondoren artean diferentzia asko dago. Eta sozializazioa ere ez da, beste barik, soluzioa. Zelan egin jakin behar da.

—Zer egin, hala ere, gauzak holan dagozen artean?

—De fakto, osagile bakoitzak jakin beharko dau bere lanaren sozializazioa egiten. Ez dago pobre bat zaindu barik lagatzerik, dirurik ez daukalako.


—Asmo horrek daroazuz etxera?

—Neure ahaleginak egingo ditut, eta gehiago ezin leike inork egin.

J. A.

Maite Idirin berriz kantari

Urtea amaitu baino lehen, Maite Idirinek disko bi izango ditu salgai. Lehenengoan Etxepareren bertsoak agertzen dira, eta J. M. Arrizabalaga bizkaitarra da dolnuen egilea. Kantuak honeek dira: «Euskera», «Emazteen fabore», «Judizio jenerala» eta «M. Bernat Etxepareren kantuia». Bigarren diskoa Maite Idirinek berak egingako kantuekin osotua: «Nere herria», «Zuek gazteok», «Izenik gabekoa» eta «Zigorra». «Goiztiri» euskal disko etxeak argitaratuko ditu disko blak.



EZ EIZU GABONIK EGIN eta EIZU HARPIDEDUN BERRI BAT

Izen-abizenak
Bizitokia
Herria	Probintzia

IPAR ALDETIK BI BERRI

Liburu berri bat, Luis Davant-ek egina

Hilabete honen lehen egunetan agertu zaiku liburu berri bat Ipar Aldean, Euskal Herriko Historiaz. Ez da euskeraz idatzia, erderaz baino. Ainitzek* esanen dute egileak, euskeraz zekienez gain, euskeraz egiten ahal zuela. Baina erderaz egin badu, uste dut gehiago hedatua edo zabaldua izan zedin egin duela.

"Histoire du Pays Basque" edo "Le Peuple Basque dans l'histoire" liburu berria, Luis Davant laborantzako* inginadore* ezagunak argitaratu dauku. Ipar Aldeko gazteek lehen aldia izanen dute, Euskal Herriko historia euskaldun batek eginik irakurtuko dutela. Eta liburu honek garrantzia handia ba du, zeren* eta orain arte, eskoletan segurik, ikasten diren Historiak, gerlak irabazi dituzten erresumek* eginak baitira.

Interes handiko lana beraz* eta errexxi irakur daitekeena. Esan dezagun, Luis Davant Hazparneko ikasetxean erakasle dela eta bestalde* abertzale ezaguna.

Inkesta bat Baigorriko kantonamenduaz

Beñat Latxague sortzez Aldudekoa dugu eta ofizioz laborantzako* inginadore. Donapaleun eskola ematen ari da. Duela bi urte, liburutto bat agertu zeukun, "Herriko Batasuna" izendatu zuena. Orain beste lan bat argitaratu du, garrantzia handikoa Baigorriko kantonamenduarentzako. Kantonamendu edo eskualde* hau arras* barnetik miatzen edo ikertzen* dauku, duen bizibidea xeheki argituz, azken hamar urte hauetan zenbat jende galdu dituen esanez, zenbat diru ateratzen eta sartzen den salatuz eta beste ainitz* ikertze mota irakurleari aipatuz. Inkesta horren bidez agertzen daukun gauza da, Baigorriko eskualdea husten ari dela, industria eskaszez. Azken hamar urte hauetan bost ehun gazte goiti* joan direla atzerrietarat, aldiz* zortzi ehun bat kanpotik sartul

Ipar Aldean ere kantaldiak egiten dira

Ipar Alde honetan ere kantariak, eta bereziki kantari herrikoiak, abertzaleak, erne dabilta herriz herri euskal kantu berriaren ezagutarazten eta maitarazten. Gero eta herri edo itsas hegiko* hiri gehiagok eskatzen dituzte kantari berriak.

Hala nola, abenduaren 5ean Donibane Lohitzunen, 13an Urrufian, 20an Ainoan, 22an Baionan eta 27an berriz Atarratzen izan dira kantaldiak. Beste bost edo sei herri ere eskatu dituzte, baina ez dakigu oraino xuxen zein egunez emanen dituzten beren kantaldiak.

«Gure Herria» aldizkariaren azken zenbakia

"Gure Herria" da urtean sei aldiz, G. Eperre jaunaren zuzendaritzapean moldaturik, agertzen den agerkaria. Baionan argitaratua da. Aurtengo azken zenbakia eskuratu dugu eta iduritzen zaiku gai interesantak ba dakartzala bere orrialdeetan, hala nola Antonio Maria Labayenen artikulu bat Elizanburu-taz, P. Lafitteren beste bat, erderazko "voir" hitza nola euskeraz itzul, Eta beste zenbait ere.

GEXAN LANTZIRI

dauku, **deusku**
dezagun, **dalgun**
zaiku, **jaku**
zeklen, **ekian**
zeukun, **euskun**

Mondragoeko Euskal Liburu ta Diskoen Azoka

"Ba dakikezue*, Euskal Liburu ta Diskoen II. Azoka* ospatzeko asmoa genduala, abenduaren 20, 21 eta 22an, Baina, gaurko egoera dala ta, beste baterako uztea erabaki dugu. Konprenituko dozu elakoan, hartu eizue gure agurrik be-roena" (Eratzailleek).

Juan Anjeli oharrez

J. A. MOGEL, J. L. VIVES ETA BESTE

Etxebarratar Juan Anjel adiskidearen lantxo bat irakurri dut ZERUKO ARGIA-ren 405, zenbakian (1970-12-6). J. A. Mogel, J. L. Vives eta beste. Gogoz irakurri ere. Ohar* zorrotzak, ikusmolde zehatzez. Mogel eta Vivesek elkarren artean duten zerikusia adieraziz. Oharrok oso Interesanteak iduritzen zaizkit, Peru Abarka hobeto ezagutzeko.

Baina gai honi buruz puntu bat argitu beharra dut, lehenago honetaz mintzatu garenon izenean. Zeren Juan Anjelek dio: «Euskera-zale geienak, Mogelen «Peru Abarka» aipatzerakoan, zuzen edo zear-ka, ia danak esan digute Mogelek Vivesi jarraituz idatzi zula bere eleberrri*-antzeko ospetsua».

Eta guk ez dugu dudarik, Peru Abarka beste era batekoa bada ere, lehen Ideiak Vivesegandik hartu zituela, berak aitortu zuenez, geroago adieraziko dugunez.

Baina Juan Anjelek dio: «Vivesen aztertzaile ta irakur-zale ospetsu danak, zioten zaletasuna aitortu dute an ta emen, iruzkiñak* eta kritikak egiñaz. Mogelek, ordea*, nik dakidala, itzik ez ortaz.»

Esetz? Ez ote? Ala batari edo besteari ez ote diot ondo ulertu?

Lastima Juan Anjel adiskideak Mogelen lan guztia ez ezagutzea. Ez da nire asmoa adiskide honen iritziak txartzat hartzea, baina bal gauzak argi jartzea. Eta adiskide honek konprenituko nau.

Peru Abarka-ren 18881.eko edizioak erderazko hitzaurre luze bat du, eta hitzaurre horretan egileak aditzera ematen du nondikakoak eta zertarako diren bere asmoak. 1899.eko edizioa erdal itzulpenarekin egin zen; eta Azkuek Zer edo zertxu izenezko hitzaurretxo bat egin zion, eta bertan adierazten du erderazko hitzaurre luze hura zergatik kendu zion. Orain «La Gran Enciclopedia Vasca»k argitara berri duen edizioa gisa berean egina da eta Azkueren iritzia errespetatu da, egin nion hitzaurre berrian nioen bezala. Baina 1881 eta 1904.eko edizioak Mogelek berak erderaz egindako hitzaurre luze harekin argitaratu ziren. Hitzaurre hau, hara zelan hasten duen:

«El célebre Juan Luis Vives dio a luz su aplaudida obra del ejercicio de la lengua latina, con el designio de que se ejercitasen los jóvenes en el buen gusto de ella, y aprendiesen sin fatigarse con diccionarios...» eta abar eta abar.

Hortik hartu ideia eta ondoren beste hau dio, bere lan nagusitatzat dugun Peru Abarka-ri buruz:

«A ejemplo de tan gran hombre en la República literaria, he juzgado hacer un gran servicio a la Patria sacando al teatro público los primores de un idioma que sólo se ha conservado en su pureza original en los desiertos, a donde no han llegado sus corruptores. Estos diálogos no se dirigen a la instrucción de la juventud bascongada, sino a la de los que son tenidos por muy literatos». Eta abar eta abar.

Honenbestekin, uste dut argi gelditzen dela puntu hau. Elkarren lanetan izan daitekeen kidetasuna norainokoa den, hori beste kontu bat da; eta beste kontu honetara ba daiteke Juan Anjelen oharrak interes handikoak izatea.

Juan San Martin

digute, **deuskue**
dio, **dino**
diot, **deutsat**
nioen, **ninoan, esaten neban**
nlon, **neutsan**
zaizkit, **jataz**
zion, **eutson**
zloten, **eutsoen**

Jabi Agirre apaizaren aita hil da

ANAITASUNA honen laguntzaile ta idazlari dan Jabi Agirre jaunaren aita hil da abenduaren 12an, Bizkaiko Elorrioren, 64 urte zitularik (G.B.). Hileta meza Jabi Agirrek berak eman eban, eta mintzaldian eroapen handiz esan eban: "Erregutu deiogun Jainko Aitari Demetrio gure anaia zanaren alde. Eta, Euskal Herriaren egoera mingots honetan, zuzen eta arduraz jokatzen jakin daigun".

gure artistak gaur eta hemen

REMIGIO MENDIBURU ESKULTOREAREKIN ELKARRIZKETA

Azken urte hauetan, azalduak dira gure artean zenbait* artista, pintore eta eskultore, atzerrian sarituak eta gure Herrian ezezagun ditugunak. Aho gaiztoek diotenez, holakoak burges, arlote bakartiak, orientalezak eroak* besterik ez dira... Baina, benetan zer dira? Nola bizi dira? Eta zer gogoeta darabilte, Euskal Herriko hari sozial-politikoetan murgilduta dabilzan gizon artista hauek? Ezagunak izan daitezke; baina ulertuak, adituak, konprenituak?

Ondarrabia eta artea, biak batera ditugu; batera bait* daude Mendiburuaren eskulturak eta haiek begiratzeko, ikustatzeko dituen herria. Han lantegi bat, azkasi* enborrak, haizkorak eta zintzelak, denen erdian gizon bizardun bat eta zurezko* lana, obra.

Honela irakur daiteke bere obran:

Remigio Mendiburu.

1931.ean Ondarrabian jaioa.

1958.ean Diputazioak lehendabizikoz saria eman zionekoa.

Agerketak

1965.ean Barcelonan, Gaurko Eragina.

1966.ean Madrilan.

1966.ean Bilbaon, Museoan.

1966.ean Gasteizen, Museoan.

1966.ean Venezian, Bienal.

1966.ean March Fundazioan, Laguntza.

1969.ean Bilbaon. "Grises" deritzan aretoan.

1971.ean Madrilerako gertatzen. Gaurko Artea.

Eta, artistetan harrigarri: Mendiburu ederki mintzatzen da. Gora eta behera, harat-honat egiten du solas*, ez hala-koetan klasikoa denez, gure erara baizik, bertsolariak bezala.

—Esaidazu, Remigio. Artistok ere, beste edozein taldek bezalaxe, gizartean sartu, xertatu* behar duzuela esan ohi da, nabarmen eta buhame* eta betiko bakarti izaten aspertuta zaudetela, langileekin, periodistekin integratu egin behar duzuela... Zergatik, bada, urruntzen duzue zeulon burua?

—Artista, gizartean sartua ez badago, halako sartzearen aldeko ez delako da. Ez dut nik zertan sartu beharrik, nire iritzien aurka dagoen gizarte batean. Neure buruaren erantzukizuna* daramat, eta, gizarte horri zerbait eman eta aldatzeko, lan eta indar handi bat egin beharrean nagoela uste dut. Gaurko gizartean, ekonomi-ametsaren aurrean ez nuke etsi* nahi, Nire artelanek berri dezakete. Horrela izen da beti.

—1966. urtean, Artisten Euskal Eskolatzat agiri* bat argitaratu zenuten. Egun* taldean egin ahal duzue lana, ala, Txillidak esan berri duenez, sasoi eta toki berean une bateko bateratze bat besterik et duzue?

—Txillidak esandakoak bere sasoiak kanpora esan ditu, eta ez dute ezer argitu, argitzea ona izanik ere. Dena dela, beti egin izan dugu lana elkarrekin, ideietan eta asmoetan. Adibidez, Ondarrabiko aeroportuaren anteproiektua taldean egin da, Oteizak, Sistiagak, Zumetak eta laurok, gero bete ez arren. Baina, zer da taldean lan egitea? Denon arteko harremanaren ondoren baldin* bagabiltza, horrek honako arrisku hau du: batezko beste ez duela bakoitzak berea egiten. Talde barruan bakoitzari begirune zor zaio, izanak eta herriak mugatzen dute taldea eta ez alderantziz*, sarritan uste ukan* den bezala. Erromantkeria kaltegarri batetan erori* izan gara maizegi*.

—Eta zu zerorri nola bizi zara? Pozik ahal zaude? Zuen taldea ongi bizi dela, Bidasoako hippy taldea zaretela esan ohi da. Eskultura hauek dirurik ekartzen ahal dautzute?

—Gaizki bizi naiz, zeren* hemen Euskal Herrian artista bizi antiekonomikoa bait* da. Iheskeria* omen da. Hala diotenak ekonomi-kategoriekin ari* dira erabakitzen. Hemen ez zaigu ezer erosten eta ematen, ematen duenak zerbait eskatzen bait du truke.

Gure Herrian ba dira ongi bizi garela uste dutenak, eta baita begitan hartuta gaduzkatenak ere, Gaur eta hemen —15 urte honetan halaxe nabil— ez daiteke artetik bizi. Haserre erantzuten dautzute, ukan* ere ez bait du inork gure ardurarik ez kezkarik. Ez dauku inork galdetzen, zuk bezala, nola gabiltzan diruz. Artistak garelako, ez dugu deus* edukitzerik geure, aldi berean gizonak ere ba garela ahantzirik*. Ni hestu bizi naiz. Euskal industrialarien ardura bakarra dirua da, ez dute besterik buru-muinetan: errotan alienatuak daude.

—Euskal artistek, herriari, orain bizi den sare sozial-ekonomiko honetan, koordinadetan ezer ematen diotela uste ahal duzu?

—Hori ez dut nik esan behar. Nik hala uste dut. Horretarako ari naiz hamabost urte honetan, neure eskulturekin usteltzen. Naizena eta dudana ematen dut nik. Geroa herriak esan behar du. Nik Huxleykin batera honako hau besterik ez dut esaten, ni besteekin batera noa eta nago erantzunkidetu*. (Hauxe da artistaren definiziorik hoberena).

—Adizu*, Remigio. Zuek egiten ari zaretena herriak jaso eta ulertzen duela uste ahal duzu?

—Beha*. Herriak ez du arte-obra bat oilo bategandik berezitzen, itoa bizi bait da. Bizitzara zabaltzeak, bai amaren altxotik bai eskolatik... okerrak izan ditu. Dena besteena egitea da (imitazioa), hierarkia, hautamenaren pisua; baina norberak egitea, deus* ez. Eta halako itxura dugu...

—Nola adieraziko zenioke heriko bati zeure artea, zer begiz ikusaraziko?

—Nire interesa antzinako gauza herrikoietan eta orain karraketan* dagoenean dut, eta arte-lanen azken emaitza axola handikoa da beraien* ulertzeko.

Buruan bizirik dagoenaren eta ez inbentiboaren berdina axola zait. Argituko dautzute: Ba niharduen behin Bizkaian zuhaitzak* botatzen, eta non topatzen dudan oihan* guarda, Amorrortu jauna, baserritar hargina, neure aitarekin lan eginkoa; eta neure lana ikustatzera eramane nuen, Ikustean, honela esan zuen: Al uztauri bat dirudi. Gizon hark zerbait aditu zuen. Eta igurtzitzen hasi zen luzaroan. Nork bere begiz ikusi behar ditu holako gauzak. Zergatik zaio jendeari laketa* gaua edo xoria, ez gauak eta ez xoriak esan gura dutenik ez dakitelarik? Hemendik sortzen dira printzak eta xirriskuak, estrukturalismo, sozialismo eta -ismo guztietan. Nork berak duen zabaltasunez eta libertatez uler daiteke edo ez daiteke hau; eta jendeak ez du hori ulertzen, bere burua ere ulertzen ez duelako. Eta ulertzeko aukeramenik ez badute, nolatan ukanen* dute erosteko? Jendea integratua dago. (Hemen Juan Ugarteren —Navarroren— oroitzapena egin nahi dut; asko ari* zait laguntzen).

—Eta, amaitezko, Remigio: zer deritzazu gaurko euskal pinturaren egoerari? Izenak.

—Sortzeari buruz deus* guti. Vicente Ameztoy, Marta Cardenas, Carlos Sanz bezalako gazte batzuk benetan sortzen ari direnak izan arren. Hauk benetan ari dira.

Gracenearen pinturak —bere pertsonak ere— garbitasuna eta poetika ba du.

Baina goizegi dela uste dut inortaz deus esateko. Aldiak esamen du, eta ez logikak eta adimenak.

— EDORTA KORTADI

Ondarrabian, 1970

daitezke, **daltekez**
daramat, **darroat**
daude, **dagoz**
dauku, **deusku**
dautzute, **deutsue**
deritza, **deritxo**
dezakete, **daikoe**
diote, **deutsoe**; **dinoe**
gaduzkate, **gaukez**
zaigu, **jaku**
zaio, **jako**
zaude, **zagoz**
zaudete, **zagoze**
zenioke, **zeunskio**
zenuten, **zenduen**
zion, **eutson**

IPAR VIETNAMGO ELIZA (2)

1955.eko uztailetik* aurrera, ez zen ezer mintzaten Ipar Vietnamgo Elizaz. Ba zirudien, Erroma bera ere ez zela hartaz interesatzen, Mendebaleko* egunkariak lerro batzuk ematen zituzten oraindik, hango Eliza bizi zela adieraziz. Baina inork ez zion inportantziarik ematen. Vatikanoko Kontzilio-koek konturatu ziren, Ipar Vietnamgo anaiak han ez zirela. Baina, Kontzilioko arazoetan sartutakoan, laster ahaztu ziren beren anaiez.

1966. urtean, Ipar Vietnamen amerikanoen bonbak sailka erortzen* hasi ziren, Hego Aldera pasatutako vietnamdar katolikoek hain biziki desiraturiko bonbak, hain zuzen ere. Zer zentzugabekeria! Orduantxe hasi ginen, Vietnamgo Elizari buruz berriak ematen, "Vietnamgo Elizaren Oihartzunak" deitutako geure boletín tipian. Berri hauk, hain erabatekoak* ez baziren ere, Mendebaleko jendearentzat ustegabeakoak ziren, Ipar Vietnamen Jainkoaren berririk ia ez zela uste baitzuten.

1954. urtean, Ipar Vietnamen 822.500 kristau bizi ziren. Gaur, hasitze demografikoa kontuan izanik, 1.200.000 bat dirateke*

1968. urterarte, 13 obispok gobernatzen zuten Eliza. Eta orain 12 baino ez dira. Beren tokietan bizi ziren 315 apaizetarik asko zaharrez hil izan dira; beste asko, aidekoek botatako bonbez. Seminariorik gehienak hutsik zeuden; eta normalean jarraitzen zutenak, 1968. urtean, bonbaz kiskailiak izan ziren. Memento* honetan, apaizgorako jendea bildu beharrik kezkatzen gaitu, Okerrago dena: apaiz zaharrak ba doaz, eta ez dugu ordezkorik.

Erljio askatasunari dagokionez, Konstituzioak zaintzen du. Hala ere, Errejimenaren hasieran, zenbait* apaiz eta laikok tratu txarrak jasan* zituzten, betiko gorrotoaren gatik edota elkarren arteko haserre partikularren gatik, eta abar.

Ipar Vietnamdar gehienek bezala, katolikoek ere asko sufritu izan dute, bonbak direla ta. Baina, beren eginbehar herritar eta erlijioso betetzen, ez dago ezer kontra esatekorik.

Izpirituari dagokionez, behinolako pribilejio materialik gabe, askozaz libreago sentitzen dira, herriko gehienek antzera, bizitza normala eramateko, Ebanjelioko iturri garbitik edanez.

BIZKAIKO ELIZA

Apaiz berriak

Jesus Maria Llona, Jose Luis Villacorta eta Luis Maria Uribe.

Parrokia berriak

Algortan parrokia berri bat egin dabe, San Martinen zuzendaritzapean. Eta Bilbon, berriz, "El Salvador" izenarekin, Campo Volantín eta Tivoli izenekin ezagutzen dan hauzoan.

Kargu berriak

Antonio Maria Laburu, Algortako San Martin elizako parroko. Felix Arteaga, Lejonako parroko. Jose Cruz Gorostiza, Kristo Errege elizako kargudun, Bilbon. Eugenio Altazubia, Santurtzeko "Virgen del Mar" elizako parroko. Julen Gaztelu, Abadiñoako parroko. Jabier Zia Ziauriz, Sanfuenteseko kargudun. Jose Manuel Elorriaga, Truziosko kargudun. Luis Pinedo, Santurtzeko San Jorge elizako parroko. Luis Otaño, Iturrigorriko parroko, Bilbon.

Jesus Maria Etxebarria, Munitibarko parroko. Lorenzo Salaberria, Erandioko San Agustin elizako parroko. Juan Bautista Fernández, Berangoko parroko. Ramon Larrañaga, Iorretako parroko. Luis Amiano, Mendatoko parroko. Angel Maria Etxebarria, Tivoli aldeko parroko, Bilbon. Apolinar Martínez, Asisko San Frantzisko elizako parroko, Bilbon. Emilio Gondra, Mundakako parroko. Fernando Briones, Las Carre-rasko parroko. Florencio Unzueta, Ubideako parroko. Pedro Pagonabarra, Kortezubiko kargudun.

A. Carlos Beraza, Pozokoetxe kargudun, Basaurin. Enrique Aman, Zurbaran Barri inguruko kargudun, Bilbon. Mario Sarrionandia, "Nuestra Señora de la Asunción" elizako parroko, Bilbon. Domingo Bereziartua, Getxoko laguntzaile. Juan Jose Aranzamendi, "Inmaculada Concepción" elizako laguntzaile, Bilbon. Santiago Duo, Mundakako laguntzaile. Pablo Maria Laradogoitia, Algortako laguntzaile. Eusebio Arregi, San Martin elizako laguntzaile, Algortan. Ignacio Murrillas, Kristo Erregeko laguntzaile, Bilbon.

Luis Etxebarria, "Nuestra Señora del Rosario" elizako laguntzaile, Bilbon. Roman Landera, "María Madre de la Iglesia" elizako laguntzaile. Luis Maria Elzo, Lejonako laguntzaile. Juan Izagirre, Bermeoko Andra Mari parrokiaren apaiz taldearen buru. Jose Gandiaga, Bermeoko Andra Mari parrokiako apaiz taldeko. Eutikio Zulueta, Bermeoko Andra Mari parrokiako apaiz taldeko. Martin Olazar, Zeanuriko laguntzaile. Bernardo López, Corpus Christi parrokiako laguntzaile, Bilbon.

Rafael González, Bilboko San Bizente elizako laguntzaile. Felipe Gangóiti, Tivoli aldeko "El Savador" parrokiako laguntzaile, Bilbon. Jose Luis Villacorta, Sestaoko San Migel parrokiako laguntzaile. Jesus Celso, "San Francisco de Paula" elizako laguntzaile, Santutxun. Alejandro Morales, Las Carrerasko laguntzaile. Javier Vitoria, Derioko Seminarioa hezitzaile. Francisco Ortuzar, monja Karmeliten eta "Siervas de Jesús" deituen kapellau. Celestino Solaguren, Durangoko Klairisen kapellau. Jose Maria Pastor, Crucesko kapellau.

Eusebio Ozerinjauregui Etxeratua

Séméz Zeanuritarra dan Eusebio Ozerinjauregi jauna, Ekuador eta Venezuelan hogetabi urte lanean igaro ondoren, berriz ere etxeratu jaku. 1943.ean apaiz egin zan, Gastelzen. Arboledako milna herrian lehlatu zan bost urtean, batez ere Irakaskintzan.

1948.ean Hego Amerikako misio lurraldeetara Joan zan, euskaldun apaizen lehenengo taldean, eta lau urtez misiolarien nagusi izan da.

Bai gorputzez eta bai gogoz, gaztetuta etorri jaku. Era guztietariko opresiopean zapaldurik dagoen gizonak eta herriak ezagutu ta maite izan ditu. Errealidade hori ezagutu ta maitatzeak ondo erakutsi deutso, zelakoa izan behar lizateken gizonaren salbazio osoa.

Ez dau herriratu, lasal bizi ahal izateko asmoak. Orain, euskeraz mintzaten dan herri batean sartu gura dau, bertan antropologia bidetik lanean ari* ahal izateko: Ikusi, entzun, ezagutu, ikasi. Euskalduna izan arren, eta euskaldunak ondo ezagutzen ditualarik,

ez dau bere eskema ta ideiak goitik behera Inori ezartzeko asmorik. Argiro ulertzen dau, Euskal Herria ez dala geldirik egon, bera kanpoetatik ibili dan bitartean. Ba daki, ostera, balore asko argitu direla eta arazo astunak sortu. Prest daukagu, herri giro honetan gizon izanik, sinesmena bizi nahi dabenentzat.

Eta, egia esan, ba dogu bai geure artean honako misiolarien prenta gorria. Ongi etorria, Eusebio jauna, eta zorionak bere amari eta bere herritar gutxiei.

BARRESKI

Elkarrizketa

"Euskal neska batekin gura neuke korreoz elkarrizketan hasi. Hizkuntzalari eta botanikazale naiz. Nire zuzenbidea: Alfred Berglund, Viardp, S - 26091, Forslorsholm, Suecia".

Eibar

Zuloagak Eibarren bete zuen arte lana

Inazio Zuloaga pintore entzutetsuaren ehungarren urteburuan, ongi iduritu zaigu berak Eibarren pintatu zituen lanen berri ematea. Eta, era berean, baita Arrateko elizarako egin zituenena ere.

Hemendik aparte, denok dakigu, gogoangarriak ditugula Euskal Herriko beste zenbait* lekutan egin zituenak ere, Zumaian batez ere, eta bereziki Bilbako Arte Berriaren museoan, Donostiako San Telmo museoan, Bermeoko kasinoan, Zumaiko Santiago etxean, eta abar.

Ba dakigu anitzek* esango dutela, Zuloagak, bere galengatik, pintore erdalduna dirudielako; baina, gure iduriz, euskaldun baten Espainia ikusteko era zela esango genuke. Aparte utzirik, Flores Kapertxipik zioen bezala, pintore bat ez dela euskaldunagoa, euskaldungoaren barnean soilki* aritu* arren.

Artistak, artista den aldetik, libre du bere bidea hautatzea. Hala ere, airtortzen dugu, Zuloagak euskaldungoaren barnean bakarrik egin bazuen nahiago genuela. Baina bere temperamenduak, beharbada, gai gogorragoak behar zituen hemen aurki zitzakeenak baino; eta artistak barne delari erantzun zion.

Beste gauza batzuk ere ba direla? Bai noski*. Baina, hemen, gure asmoa ez da hori. Guk ere nahiagoko genuen, Picasso Gernika egiten ari* zen bitartean, Zuloaga ere inguruko lizatea, eta ez Alkazar-ean aritzea. Baina... baina... ur joanak.

Eibarren bere lehen denboretan egin zituen lanak hauek dira:

1. Arrateko itsua, 1887.
2. Zaharraren burua, 1887.
3. Apaiz bat otoiizean, 1886-1887.
4. Azken hagina, 1888.
5. Eibarko iturria, 1888. (Bere familiakoek gordetzen dute Zumaian).
6. Ukulu bat, 1889 inguruan.
7. Forjari zauritua edo Sutegian lanean zauritua, 1890.
8. Don Pedro ipotxaren* erretratoa, 1890. (Bruselasen, Van Custers-en kolezioan).
9. Don Plazido Zuloagaren erretratoa, 1892-1893.
10. Pintorearen amonaren erretratoa, 1890-1893.
11. Eibarko korridaren estudioa, 1899. (Etxebarrietaren kolezioan, Bilbaon).
12. Eibarko korrida, (Eibar-Segovia), 1899. (Lanckronsky Kondearen kolezioan, Vienan).
13. Naturaleza hila plater urdinean, 1907. (New Yorken, partikular baten kolezioan).

Hoietariko gehienak, gaur, ez dakigu non direnik ere. Eta hoietatik aparte, Arrateko elizarako egin zituen lau kuadroak, bere aideoak modelo harturik eginak, Sevillan eginak dira, 1904.ean.

Eibarren, bere aideoen artean eta Arraguetako etxe batean, dakigunez, guttienez bi kuadro gordetzen dira. Hau da pintorearen jaiotzako ehungarren urtea betetzean, bere herrian dauden berria. Baina egunotan aukera ederra izango dugu bere lanak ikusteko, Armeriako Eskolan bere omenez egingo den erakusketan.

EGURENTARRA

daude, dagoz
zaigu, jaku
zloen, inoan, esaten eban.
zlon, eutson
zitzakeen, elkezan.

Zuloaga

Iraganak iragan*, hamabost egun luze Iraun ondoren amaitu berri dan erakusketan, Zuloaga ospetsua zanaren hogeitairu lan (kuadru eta dibuju) ikusteko aukera izan dogu.

Mota eta sasoi guztietako kuadruak azaldu dira. Txikiak eta handiak, ezagunak eta ezezagunak, baliodunak eta baliogabeak (Zuloagarenak ez ballira), gaztetakoak eta zahartzarokoak, atmosferadunak eta atmosferabakoak, kontrastezko bereziak eta erdiltintazko ez horren famatuak. Berba batez, Zuloagaren edozein* kuadru berezi, aparteko, ospetsu, jator eta karakteristiko falta bazan ere (Zuloagak

600 bat kuadru egin ei zituan), ikusi ahal izan ditugunei aski* deritxoegu, Zuloagaren era eta tankeren* berri jakiteko ezezik, baita bere joritasunaren* barruan izan zituan aldaketa, eboluzio eta azken jokerak ezagutzeko ere. Horrez gainera, berak ikusi eban* Espainia harrigarriaren kuadru erreprezentatiboren bat edo beste ere bertan ikusi ahal izan ditugu.

Hona hemen agertu diren kuadru guztien zerrenda. Erretratuak: Ama, Etxeguren alarguna, Lolita Penaud, Plazido Zuloaga, Jose Orueta, Oruetaen emaztea, Basilio Igeldoko apaiza, Falla, Azorin, Angustias andereñoa, La Oterito, Jose Orueta kontrabaja Jotzen, Autorretratoa. Paisajeak: Pancorbo, Motriku, Sena Ibaia. Beste zenbait gai: Mantilladun andrea, Hiru dibuju margotuak, Eztizaltzailea, Juan Sebastian Elkano, Frailea, Merienda.

Laugarren monografia

Lehenagokoan esaten genduan, Eibarren hiru monografia ditugula. Honeexek: Gregorio Mujikarena, Pedro Zelalarena eta San Martinen zuzendaritzaren pean laster lrteteko* dana. Esan bagenduan, esan genduan. Oker gengozen oraingoan ere. Gazte ezjakinen okerra. Hala ere, okerrak ez gaitu isilduko, irakatsi baino.

Gutariko bat Juan San Martinengana joana zan bisitaxo bat egi-tera, etxe horretan zer ikasi beti dago ta; eta era honetan itaundu eutsan Juanitok:

—Hik idatzi ahal dok, Eibarren hiru monografia baino ez ditugula?

—Zer, ba? Orain be izan joagu hanka-sartzeren bat ala?

Erantzuteke*, liburu bat atera eban. Hona hemen azalean inoan*: «EIBAR. Monografia Descriptiva de esta Noble y Leal Villa Guipuzcoana. Pedro Sarasketa. Año 1909. Imp. de P. Orue. Eibar».

Hain zuzen, 1908. urtean, Uztaileko* Euskal Jaietan, bigarren saria irabazi eban* liburu. Lehenengoa goratxoago alpatutako Gregorio Mujikarenak irabazi eban. Sasoi haretan, hamaikaxo eta bi linboan ginen; hala ere, ba ziren Pedro Sarasketa ainako eta Orueta mailako inprentak. Horrelakorik ba ote da gaur egun Eibarren?

Kafka

Kafka irakurtzea gauza bat da, eta Kafkaren lanak euskeraz irakurtzea ba dira bi. «Lur» editorialak argitaratu berri dauan «Itxura-Aldaketa» irakurri dogu. Aspalditxo ginen Kafka ezagutzeko; inoiz ekin ere ekin izan deusagu bere obraren bat irakurtzeari, gero, amaitzeke*, lagatzeko.

Erabat* alegratzen gara, Kafka euskeraz ezagutu dogulako. Ezagutu dogu; baina ez dakigu Kafkarekin bat gatozen ala ez, Kafkaren hariari jarraitzen deusagun ala ez. Hala ere, ez gara Kafkaren bildur. Berrito irakurri beharko dogu; baina oraingoan egunez, ametsik ez daigun egin.

ALBISTARIAK

Munitibar

Iberduerok Totorikarako eta Gerrickaizko San Migeleko kofradietarako egozen* egurrezko argi poste zaharrak kendu egin ditu eta zementuzko berriak sartu euren orde. Hariak oraindino ez* ditue jarri, baina ea Urte Berriak dakarskun estrainatzeko aukera.

Eliza ondoko jardinetako obrak hasi jakuz eta aurrera doaz, amaitzeko epea noizko daukan ez dakigun arren. Herritarren batzuk kezu dabilta, goizaldean kale osoan argi bat ere ez dagoelako. Gazez ordu bata inguruan amatatzen ditue, eta biharamunean ez ditue biztutzen. Golzean autobusera joaten direnek ilunetan ibili behar izaten dabe.

Azkenez, «Extensión Agraria» koei eta Gernikako Udalarit* ohar bat egin gura geunskioe. Gernikan baserritarrentzako izan dan erakusketarako propaganda txartelak erdera hutsez egin ditue. Honek biotarik bat agertzen deusku: edo euskeraz ez dituela egin nahi eta euskaldunok ez gaituela haintzat hartzen, edo bestela otu* ere ez jakela egin; eta bigarren honek gauza txarragoa agertzen dau oraindino: barruko argirik eza eta talentu falta.

ERRAMON GERRIKAGOITIA

Bermeo

Gaztelugatxerako bide berria

Euskal Herri guztiko tokirik ametszkoenean eta ikuspegi zoragarriaren erdian dago Gaztelugatxeko San Joanen ermitatxoa, Matxitxako lurmuturraren ondoan, Bermeotik Bakiorako bidean.

Hara joateko, bide kaskar, neketsu eta ez arrisku gabe batetik ibili behar da. San Joanetan, ekainaren* 24ean eta abuztuaren 29an, Bermeotik eta inguruko zenbait* herritatik, hainbat erromes ausartzen dira bide horretatik behera lehenengo, itsas ertzeraino, eta ondoren igon behar diren ia hirurehun mailako harrizko eskaileratik gora, itsasoko olatuen zarata belarrietan dala, eta haize kresaltsuak birikiak* garbitzen dituala.

Erromes honeen artean, gazteak eta zaharrak ikusi zein-ke, alaitasunez eta fedez beterik, San Joanen ermitarako bidearen nekeak bulartsu igaroten dituelarik.

Orain, Bizkaiko Diputazioak 200.000 pezeta eralgiko* ditu, bide berri bat egiteko. Bide hori, erregebidetik eskailera hasten dan lekuraino izango da. Diru gutxi dirudi, baina traktorea lanean hasita dago. Autoak ere ibili ahal izango ei dira bide horretatik.

Gero, hurrengo asmoa, ermitari goitik beherako konponketa eder bat egitea ei da. Ba dauka, bai, beharrezana, eta Gaztelugatx zaleak poztuko dira.

Arrain habia?

Joan dan abuztuaren 20an, "Atalaya del Mar" 100 toneladako atunzalea, Coruñaiko portutik hurrean, beste ontzi batek jota hondora joan zan. Buzoen laguntzaz, eta neke askoren ondoren, berriro azalera atera ahal izan eben, eta atoian* Bermeora ekarri. Baina ontzia ez zan ezertarako gauza, zeharo kraskatuta egoen eta.

Motorra eta beste tresna batzuk atera eta aprobetxatu ahal izan zituen; baina kaskoa, harriz beteta gero, "Txilimanku" deritxon kalan hondoratua izan da berriro.

—Zertarako? itaundu deusat legazale* bati.

—Gure ustez, kaskoa arrainen gordeleku eta habia bihurtuko da denbora gutxiren barruan, batez ere legatz eta bisiguentzat. Bide batez, leku honetan legearen kontra dabilzan arrasteroen sareentzako eragozpen bildulgarria izanen* da.

Pio XII

Abuztuaren 9an, Kanariak uharteetatik hurrean arraintzan ebilela, su hartzen hasi zan atunzale hori. Sua kuadru elektrikoan sortu zan, goizaldean, eta behingoan zabaldu ontzi osoan. Larrialdi mingotsa euki eben barruko hamabi gizonak. Hainbeste ur alde guztietan, eta ezin ezer egin, Azkenean, Las Palmasko ontzi txiki bat hurreratu zan, eta gizonak salbatu egin ziren. "Pio XII", garretan, eguerdiko ordu batetan, betiko hondoratu zan.

Zeruko Argia

Izen hori eroango dau ontzi berri batek. Kaskoa Lekeition egina da, oholezkoa; eta motorra, 630 H.P.koa, Bermeoko "Construcciones Echevarria" lantegian egina.

Bat joan, beste bat etorri.

Ontzidiaz etxera

Haginzorrotz* kosterari amaia emanaz, arraintza ontziak Afrikako kostetatik etxerantza etortzen hasi dira, banan banan.

Barakaldo

Betiko ohituari jarraltuz, hazilaren 27an, ostiralez*, kantaldi eder bat eman euskun San Bizenteko «Schola Cantorum» dalakoak. Barakaldotar jator asko bildu ziren entzuteko. Txalo ikaragarriak jo jakezen.

«Schola Cantorum» hau Euskal Herriko hoberenatarikoa da. Baina gutxitan abestu izan dau Barakaldotik kanpo.

Hazilaren 28an, larunbatez, Barakaldoko txistulari mordo galant bat bildu zan, urte guztietan legez, euren zaindari dan Santa Zeziliaren eguna ospatzeko. Gaueko 9etan, anaiarteko afari berezi bat egin eben, umorerik hoberenarekin; eta gero, txistua joka, kantuz eta dantzari* izan ziren, poz pozik.

Barakaldon 70 bat txistulari dagokez gaur egunean. Luis Torre Arejula da, aspaldi aspalditik txistu jotan irakasten ari dana. Euskal Herri osoan ibili izan da 59 urtetan, txistulari eta txistularien maisu bezala ezaguna dalarik. Orain ere, hirurogetamar urte lepoan ditularik, gizon gazte eta arduradun izaten irauten dau.

San Frantzisko Xabierkoaren jaia

Lehengoa esan genduanaz, Barakaldon «Centros Regionales» dalakoak asko dira. «Centro Navarro» elkartekoek San Frantzisko Xabierkoaren eguna ospatu eben. Santa Teresa parrokiako meza nagusian parte hartu eben. Irteeran, Barakaldoko «Laguntasuna» dantzari taldeak Nafarroako dantza berezi bi jokatu zituan. «Alkartu» izeneko ikastolako umeek ere euren jaia ospatu eben.

Fermin Goti apaizaren omenez

Lutxana hauzoan, urte askotan ari izan da Fermin Goti, Zeberiotarra, «Buen Pastor» parrokiako erretore bezala. Hortxe bertan dauka «Amaya» talde ospetsuak bere etxea. Orain Don Fermin, Orozkora bidaldu izan dabe. Eta, hauzotarren gomuta bero ta zintzoa izan daian, «Amaya» taldeak dantza, txistu ta dultzaina saio zoragarri bat eskaini* eban, abenduaren 8an. Azkenean, zidarrezko erre-galu bat eman izan jakon, Lutxana hauzoak eskainitako orlogarri bezala.

Besteak

Ba dirudi, ale honetan folklorezko berriak bakarrik eman dituala. Barakaldori buruz mintzatzean, kontuan hartu behar da, hemen atzerritar asko dagozalarik, herri erdaldun batean bizl garel. Kalleetan ez da euskerarik entzuten. Eta, horregatik, euskaldungoa bitzerren maila batean dago. Euskaltasuna, berriz, folklorezko ekintzetarik sortarazi nahi da.

Udalak* —gero eta gero ere— Gabon Euskal Kanta Sariketa bat antolatu izan dau. Kantuek euskeraz izan beharko dabe, lau bozetara. Sariketa, abenduaren 27an, Igandez*, izango da, Barakaldoko enparantza nagusian.

JOAN MARI MENDIZABAL

Irailean* joan ziren gehienak, herriko jaiak eginda gero. Aurten, 110 ontzi izan dira Bermeotik kostera hau egitera joan direnak, Inoizkorik gehien. Zazpi ontzi bakarrik gelditu ziren Kantauri itsasoan.

110 ontziotan, 1.700 gizon. Herritik urrun, familietatik asago*, itzultzean diru apur bat etxeratzeko asmotan edo esperantzatan.

Baina aurten arraintza makala euki dabe eta eguraldi txarrak sarritan. Eta Kanariak uharteetako kontserbatzaileen antolamendu eskasagatik ere itsasoko egunak galdu eta beste ezbehar asko igaro behar izan dabe.

A. P. B.

ONGARRI Pentzuak

S A R B - en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsatu ondo zure ganadua.

Burubako egina, alperreko ekina.

ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.

ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dago-kiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat

Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara

ONGARRI, S. A.

piensos compuestos

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Teléfono 11

Mungialdea

Esku pelota

Ba dira zenbait* aste, «Danot bat» pelotazale elkarteak eraturik, esku pelota txapelketa hasi zala. Zorionak elkarte horri, hain kostantzia handiarekin, urtero txapelketa hau antolatzen ahalegintzen dalako, herritarren aldetik laguntza gutxi hartu arren. Eta, gure ustez, merezi dau ekintza horrek guk ere Indarra ematea, presentziarekin baino ez bada ere.

Neska futbol zaleak

Mungiko neska futbolariak gora ta gora doaz. Abenduaren 13an, Sondikaren kontra jokatu eben, Garellano zelaietan. Horrez gainera, Bilboko alkate «jauna» egon ei zan, ohorezko hasiera emateko. Juezak, Bilboko futbolari izandako hiru gizon ospetsu izan ziren.

Euskal alfabetatzea

Oñatibia jaunak gertaturiko monitorea, hasi dira batzuk gure hizkuntza irakasten. Aurrerak.

Euskaltzaindiaren alfabetatze lanak

Bizkaiko eskualde* gehienetan egiten ari* dira, Euskaltzaindiaren babesean, alfabetatze kanpainak. Mungialdea dateke, hain barik gelditzen dan bakarra. Geure eskualdean euskeraren egoera larria ikusirik, dei sutsu bat egiten deusagu Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordeari, hemen ere zerbait egiten saiatu dadin.

Gabonak eta inguruak

Gabon jai inguruan, ikastolaren alde zerbait atera ahal izateko, jaialdi bat egiten da lbaigane zineman. Aurten ere, zerbait izango danaren zurrumurrua entzun dogu, baina ez ezer konkreturik. Ba leiteke, lerrotxo honeek irakurtzerakoan, zerbait egotea.

Gabonak direla ta, Udalak* herriko enparantza apaindu izan dau. Gabon zuhaitzak*, argiak eta abar jarri ditu. Baiza, euskal letra haundirekin, «Zorionak» ipini ere.

Eta azkenez, egoera larritan egon arren, zorionak guztioi, datarren urtean jatorrago jarraitzeko.

I. J.

Hamabi Harrietatik

Abenduaren leian, Durangoko JAED elkarteak antolatuta, «El Caserio» zarzuela errepresentatu eben Landatxueta taldekoek. Nahiz eta sarrera garesti samarra izan, aretoa* jendez beterik egon zan, JAED elkarteak beharrezanean aurkitzen direnei laguntzen deutse. Bere zazpi urteko bizitzan, 6 milioi pezetatik gora banandu ditu herriko behartsuen artean; aurtentzen 900 mila pezetatik gora.

1971.eko urtarrilaren* 10ean, Astolako Hauzitegian, Gerediaga elkarteak Batzar Nagusia izango da.

Ermuko «Arce» elkarteak estalpetxo txapelketa bat antolatu dabe Gabon jaietarako.

Abenduaren barruan, Madrilako «Los Goliardos» antzerkilariak Bizkaitik zehar ibili dira ostera* bat egiten, Bertol Brech teatro egilearen «La boda de los pequeños burgueses» antzeztuz. Durangora ez ziren etorri, Geroa antzerki taldekoek eskatu izan arren.

Abenduan Durangon detentituak izan zirenei, hotza kenduaz gainera, 1.500 pezetatik 10.000 pezetarainoko diru zigorak hasi jakez heltzen.

Durangoko arte-geletatik 12 mila pertsonatik gora igaro dira azkenengo sei agerketetan. Egun honeetan, Acebal Irigoras jaunaren zeramika erakusketa bat dago.


Abenduaren barruan eskualdean ospaturiko jaiak honeek izan dira: 21ean Santo Tomas Mendraka hauzunean, eta 26an San Esteban Berrio hauzunean, Biak Elorrion.

Ermuko Udalak* lurra eskaini* dau, «guardia civil» entzat etxe berri bat egiteko.

Abenduaren 2an, Durangoaldeko Udalen Mankomunidadea egia bihurtu da. Hau dala ta, eskualdeko* 9 udal, Ermua, Otxandio eta Mallabia izan ezik, batu egin dira, eskualdeko arazo eta premiazko gauzak elkarren artean erabaki eta konpontzeko. Lehen esan ditugun hiru udal horreek, nahi bada, geroago elkartu leitekez. Asmo honen sortzailea eta lehenengo pausoak ematen saiatu zana, Gerediaga elkarteak izan zan, orain dala lau bat urte. Berak antolatu zituan alkateen arteko lehenengo batzarrik, eta harrezkero bera izan da bulzada honen arima. Mankomunidade honen babesean egin ziren, Durangoalderako, zikinak erretzeko labeak Abadiñoko lurraldeetan. Eta orain, abere hiltegi bat, pertsona nagusientzako atsedean leku bat, eskualderako ikastetxeak eta abar egiteko asmoa dauke.

JOAN ANTONIO AROMA

Sony da
ametsaren izena



Telebistatik arinena,
Eskurakoiena
(Atzamar bategaz eustekoa)

SONY edozein tokitarako da
SONY 4 kilo t'erdikoa
SONY 9 arrako pantailaduna
SONY aurrean jarritako abots gehizaileduna
SONY tximist-indarrez nahiz
bateriaz erabiltekoa
SONY-k lau letra ditu:

SONY

División Audiovisual: Telebista aparatua, magnetofono ta videotape-rako ornidua • División Sobax: Elektro kalkulatuak eskurakoak.

EUSKAL DISKOAK



ARGOITIA.-“Mendizaleak” etab.



URRETXINDORRAK.-“Neska zaharrak,” etab



OÑARRIAK.-“Baserritarra,” etab.

I. HIZTEGIA

Ale honetan izartxo bategaz agertzen diren berbak
IMANOL BERRIATUAK

ADITZ, verbo.
ADIZU, entzuizu.
AGIAN, seguramente, probablamente.
AGIRI, documento, manifiesto.
AHANTZI, ahaztu.
AINITZ, anitz, asko.
AITZITIK, al contrario.
ALDERANTZIZ, al revés.
ALDIZ, en cambio.
ALEGIA, esto es, es decir.
ALOR, arlo.
AMAITZEKE, amaitu gabe.
ANITZ, asko.
APETA, afán, ahinco.
ARABERA, según, conforme.
AREAGO, oraindik gehiago.
ARETO, sala, salón.
ARI IZAN, jardun.
ARITU, ari izan, jardun.
ARRAS, guztiz, zeharo.
ASAGO, urrun.
ASKI, nahiko.
ASTEARTE, martitzen.
ASTEAZKEN, eguasten.
ASTEKARI, asteroko perlodiko.
ATOI, remolque.
AUTU, conversación.
AZKASI, acacia.
AZOKA, feria.

BAIT, pues.
BAITA, bait da, da ta.
BAITAGO, bait dago, dago ta.
BAITIRA, bait dira, dira ta.
BAITU, bait du, dau ta.
BALDIN, kondizioari indarra emateko berba.
BALIOGO, baliotasun.
BEHA, begira.
BEHARGIN, langile.
BERAIEK, eurak.
BERAZ, hori dala ta, por consigulente.
BESTALDE, gainera.
BILDU, batu.
BIRIKI, pulmón.
BUHAME, bohemio.
BUKATU, amaitu.

DAKIKEZUE, dakizue nonbait, jakingo dozue.
DATZA, está, consiste (etzan aditzaren forma).
DEUS, ezer.
DIRATEKE, dira nonbait, izango dira.
DONAPALEU, Saint-Palais.
DONEZTEBE, Santesteban.
DUKETE, dute nonbait.

EDUKI, euki.
EDOZENBAT, zenbatnahi.
EGITAMU, estructura.
EGUN, gaur.
EGUNKARI, eguneroko perlodiko.

EGUTEGI, calendario.
ELEBERRI, novela.
EKAIN, junio.
ERABAT, guztiz, oso.
ERABATEKO, completo.
ERAKUNDE, institución.
ERALGI, gatar.
ERANTZUKIZUN, responsabilidad.
ERANTZUNKIDETU, corresponsabilizarse.
ERANTZUTEKE, erantzun gabe.
ERO, zoro.
ERORI, jausi.
ERRESUMA, erreinu, estatu.
ESKAINI, eskini, eskeini, ofrecer.
ESKUALDE, comarca.
ESNATZE, despertar, renacimiento.
ETSAI, arerio, enemigo, contrario.
ETSI, ceder, resignarse.
EUSKALTZAIN, académico de la lengua vasca.

GENIOEN, esaten genduan.
GERTAKARI, suceso.
GOITI, gora.

HAGINZORROTZ, atun klase bat, listado, rayado.
HALABER, igualmente.
HAUR, ume.
HAUTATU, aukeratu, elegir.
HEGI, ertz.
HELBURU, objetivo, fin.
HEZI, educar.
HORTAKOZ, por consigulente.
HOTS, es decir, esto es.

IGANDE, domeka.
IHESKERIA, evasión, fuga.
IKERTU, aztertu.
IKUSGUNE, punto de vista.
INGINADORE, ingeniero.
INKESTA, encuesta.
INOAN, esaten eban.
IRAGAN, igaro, pasatu.
IRAIL, septiembre.
IRITXI, heldu.
IRTEN, urten.
IRUZKIN, comentario.
IZANEN, izango.

JADANIK, ya.
JASAN, jaso, soportar.
JORITASUN, ugaritasun.
KALONJE, canónigo.
KARI, causa, motivo.
KARRIKA, kale.

LABORANTZA, agricultura.
LAKET, atsegin.

LAMIA, lamina, erdi emakume erdi egazti (euskal mitologian).
LEGAZALE, pescador de merluza.
LEGEZ, bezala.
LEHIATSU, celoso, dilligente.

MAIZ, sarri.
MEMENTO, momentu.
MENDE, siglo.
MENDEBAL, ocldente.
MINTEGI, seminario.

NABARITU, advertir, notar.

OHAR, nota.
OIHAN, baso.
OMEN, ei.
ONURAGARRI, provechoso.
ORDEA, berriz, ostera.
OROIKARRI, recuerdo.
OROKARRI, de una manera general.
OROKARKI, de una manera general.
OSAGILE, midiku.
OSTEGUN, eguen.
OSTERA, berriz; ibilaldi, viaje.
OSTIRALE, bariku.
OTU, burura etorri.

SOIL, solo, mero, escueto.
SOLAS EGIN, berba egin.
SOTIL, fino.
TANKERA, taxu, estilo.
TREBE, leber, hábil.

UDAL, Ayuntamiento.
UKAN, izan, euki.
UKANEN, ukango, eukiko.
URTARRIL, enero.
UZTAIL, julio.

XERTATU, eztitu, Injertar.

ZENBAIT, batzuk.
ZEREN (ETA), ze, pues.
ZIOTEN, esaten eben.
ZUHAITZ, arbola.
ZUR, egur.

II. PUNTU BATZUEI ERANTZUNA

XABIER KINTANAK

Beste puntu baten Inguruan ere, behin baino gehiagotan egin dautate galde: ea zergatik aspaldion **dateke**, **dirateke**, **dukezu**, **dukegu** eta gisa honetako esaerak azaltzen diren batzuen eskribuetan.

«Irakur Sail»ek publikaturiko **Sustrai Bila** liburuan, Larresoro jaunak puntu honi ikutu egiten dio trebeki; baina aglan* Krutwig jaunak hobeki estudiatua du berau.

Azken honi segituz, hauxe esan dezakegu: Euskera klasikoan (eta oraindik ere Nafarroan eta Zuberoan) gauza bat bi modutara adieraz zitekeen. Bata zen objektiboa, hau da, gauza egiazki zen bezala, bat ere dudarik gabe. Honela esaten zen kasu honetan: **da**, **dira**, **du**, **duzu**... (aita etxera etorri **da**, Josek egin **du**).

Beste modua, baina, subjektiboa zen, hau da, eglaz nolakoa zen jakin ez arren, norberak horrela dela pentsatzen zuena. Gisa honetakoak ditugu **dateke**, **dirateke**, **dukezu**, **zatekeen**, **zukeen** eta abar.

Beraz, gutti gora behera, **Aita etorri dateke** = Aita, ene erlitziz, etorri da; eta, **Josek egin duke** = Nik pentsatzen dudanez, Josek egin du noski.

Dakusagunez, lehen Gipuzkoan ere, eta oraintsu arte Bizkaian kontserbatutako forma polit eta aberats hau oso praktikoa dira, eta indartu behar ditugu, euskeraren jotortasuna eta trebetasuna handiago egiteko.

"FALEMOS GALEGO"

Ez da, ez, egunero ikusten dana, "Falemos galego" txar-teltxo bat atzeko aldean dakarren auto batetik, lagun bi euskeraz hizketan atera dira. Baina ez harritu. Gero irten diren biei Galiziako hizketa goxoa darioe parra parra.

Bata, Coruñaako kalonjea* da, Maisu Ikastetxeko irakasle, Coruñaako Irakasle Katoliko Elkartearen fundatzaile ta laguntzaile. Apaiz gaztea oraindino, "Pedrón de ouro" edo "urrezko harri haundia" lortu dau oraintsu. "Harri" hori Galiziaren alde lan gehien egin dauanari ematen ei jako. Bera hasi zan Liturgia galizieraz jartzen, Grekotik zuzenean berak galizieratu dau Ebanjelioa. Baita, beste apaiz lagun bategaz eta katedratiko bategaz batera, galizieraz meza liburua atera ere. Manuel Espiña jauna dogu berau.

Autotik irtenda, ke pautada artean eta paitar apur bat aurrean genduala, autu* luzea izan dogu. Hizketan jarriz gero, hitz jario makala ez dauka euki ere Manuel jaun horrek.

—Zer dinoskuzu galego hizkuntzaren egoeraz?

—Joan dan mendearen* erdi inguruan, Galiziako hizkuntzaren berbizte agiri bat hasten da: Rosalia de Castro, Curros Enríquez, Pondal... Indar gogor bat nabaritzen* da galiziar literaturaren alde eta galiziar hizkuntza gorde eta zabaltzearen alde. Baita, gizarte gorabeherak zuzenagotzeko eta askatasunaren alde jokatzeko ere, egarri bizia sortzen da. Indar eta egarri hori gehitzen, sendotzen, frutuak ematen ari* zan; baina... zapla! 1936.eko gudu ikaragarria!

Orain oraindino, % 90ek beti erabiltzen dabe galego hizkuntza. Jakin, besteek ere ba dakie, baita "señoritoek" ere. Baina gehienek, hitz egiten badabe ere, erderaz ondo ez dakielako da. Lotsatu egiten dira, euren hizkuntzan mintzatzen direlako.

—Zer dala ta lotsa hori?

—Jauntxoek —aberats, agintari, apaizek— herriaren maila berdinean ez jartzearen, herriari, herri xeheari, beti egiten deitsoe gazteleraz, nahiz eta euren artean —jauntxoen artean— galizieraz egin. Eskoletan erdera hutsean irakatsi da beti, eta galiziera barreagarrikeria legez hartu da. Horrexek argituko deitsu zergatik daukagun lotsa hori.

Beltzetatik hasi naizenez, geure egoeraren laino eta ilun batzuk aipatuko deitsudaz.

Galizieraz ez dogu aldizkaririk, nahiz eta galiziar gaiak eta artikulu bat edo beste galizieraz dakarrean asko izan, Buenos Airesko "Galizia" eta Madrileko "Chan", esate baterako.

Liturgian ere, zuei baino urte bi beranduago heldu jakun baietza. Politika indarrak ez ziren ez lo egon, Galiziak "a filla humilde e sumisa" izaten jarraitu eian.

Oraindino —eta hau beltza da gero!— ez dira berrehuntik gora galizieraz ematen diren mezak. Huri haundietan bat ere ez. Ezta herri txiki eta baserrietan ere. Esan behar deitsudana esateak min haundia ematen deust, baina izatez, praktikan, apaiz galegoa, herriaren zerbitzari eta herritar izan barik, gehiago da agintari eta aberatsen lagun, gehien batean. Egia da izan, herritarrek, lau mendetan* zehar hartu daben "lavado cerebral" dala ta, nahiago dabela erderaz entzun: "o entendemos millor", dinoe eurek. Jesukristok arameoz egiten eban, ez "señoritoen" hebreoz.

Ikastetxeak, kolegioak, baita Elizarenak ere —hau tamalgarria!— alienazio bide bat dira. Irakaslerik gehienak, edo kanpotarrak edo "intelectualmente castrados" batzuk dira

(Espiña jaunaren hitzak dira).

Teoriaz, Kontzilioaren erakutsiakatik, giza eskubideen dotrinagatik eta abar, gehienek bide zuzena bai ikusten dabe. Baina bidea ikusteko bakarrik izan ez, ibiltzeko baino; eta alferkeriak, azken batean, ez deitsoe aldatzen uzten. Nahiz eta gurean zuzenean baino eragozpen gutxiago izan, galiziera erderaren antzekoa da ta.

—Itzaropenik?

—Itzaropenez gainezka, bai mutil, eta ez hutsean, ba dago zergatik eta. Esnatze* haundia somatzen da azken urteotan.

Kontzilioa dala ta, 30.000 eskabide eta munduan sakabanutata dagozen ehundakaz galiziar etxetatik telegramak joan jakozen Kardinalari, liturgia galizieraz jartzeko eskatuaz.

Egunkari* guztietan, lehen ohi ez zana, sarritan agertzen

dira galizierazko artikuluak. Nik neuk ere igandero idazten dot "La Voz de Galicia" dalakoan (75.000 ale), "Outero de San Xusto" sailean.

Azken bost urteotan, herri ta huri nagusietan, galiziar kultura elkarte mordoak sortu da: Coruña "O Facho", Santiagon "O galo", Orensen "Circulum auriense"... Euren jokabidea: hitzaldiak, antzerkia, kantaldiak, liburuak...

Baita editorial berriak ere sortu dira. Orain hamabost urterarte "Galaxia" baino ez egoen, nahiz eta hogeitertan 500 liburu inguru atera, ia Buenos Airesko "Centro Gallego"ko lana gainduaz. Orain, "Sept", "Librigal" eta beste batzuk dagoz, erlijio gaiak eta beste ateratzen dituenak, galizieraz ugari, edota erderaz galiziar gaiak.

Kontra egon diren asko ta askori begiak ireki jakez, intelektualei batez ere. Honeen artean, "galeguismo" arazo hau borbor irakiten dagoela esan neike.

Institutoetan eta "Escuelas Técnicas" deritxoetan, kultura elkarteetako bazkide diren ikasle asko dagoz kontzientziatuta, burruka jatorrean diharduenak.

Unibertsidadean, batetik galizierazko Hizkuntza ta Literatura katedra dago; eta bestetik, "Filosofía y Letras" sailean, tesina asko egiten da galizieraz. Eta hau pozgarriena: ikasle gehienek galiziera erabiltzen dabe euren hartueman guztietan, Katedratiko asko, eta Galiziako beste jakitun asko ere, "Universidade Galega" jator bat lortzeko, zintzo tan sendo jokatzan ari* da.

Nire zeregin guztien artean, Maisu Ikastetxean direnei Erlijioaren Didaktika irakasten deitset, galizieraz irakatsi ere, bidezkoa danez. Irakasleei hauxe adierazten deitset: "Ezin leitekela pedagogia eraginkorra izan, ezta kristau inkarnaziorik euki ere, herriaren hizkuntza ta kultura haintzatzat hartu ezik.

—Galizia eta galiziar hizkuntzaren etorkizuna zelan ikusten dozu?

—Ondo oinarrituta dagoen optimismo sakonaz. Abiadura edo mugimendu hau mundu guztikoa da, eta ez herritxo batena edo besterena. Abiadura hori geldi erazi nahi izatea, kondairaren aurka jokatzeta lizateke, eta baita izpiritu ta kulturaren kontrako genozidiorik haundiena ere, Kontzilioak dinoanez.

GADU

«Vasconia Express»

«Vasconia Expr» s» deportezko astekarl* bat da, guztia erderaz egina, eta Jose María Martín de Retana jaunak zuzendua. Ekainetik* aurrera isilik egon ondoren, berriro agertu da eta bere 112. alea atera dau. Bere editorialean honeta dino: «Nosotros estamos siempre con el Athletic, con el Club».

«Vasconia»rekin batera ba dago Bizkalan beste astekarl bat, oso osoan deporteari buruzkoa, hau ere erderaz egina: «Stadium». Astekarl bi honeek, egunkarrietan deportea hain gutxi aipatzen dabez gero, hutsune hori betetzeko agertzen dira, antza.